

1. kapitulua

Eibar Lege Zaharraren gerizpean

SARRERA

Historian zehar, pertsonen bizimoduak eta pentsaerak egonkor mantendu diren epe luzeekin batera, aldakuntza-une garrantzitsuak bizi izan dira. Une horietan, elur-bola baten antzera, txikia eta geldoa zirudien mugimendua handitu eta bizkortu egiten da, indarrean dauden arau nagusiak hautsiz eta inertzia berriak sortuz. Batzuetan, asmakizun garrantzitsu bat izan da historiaren norabidea aldatu duena: sua, hizkuntza, nekazaritza edo eskritura, adibidez; beste batzuetan, ideologia berri baten sorkuntza izan da pentsamolde zaharrak gainditu, eta gizakiei norabide berriak gauzatzeko aukera eman diena (monoteismoa, materialismo historikoa...); eta aldakuntza-prozesu horien atzean beti, gizakiak eta giza talde zehatzak aurkitzen ditugu: batzuetan elkarlanean, beste batzuetan elkarren aurka, betiere, aldakuntza-dinamikak indartzen edo oztopatzen.

Ikerlan honetan 1766-1876 epea aztertuko dugu nagusiki, baina gidoiaren premien arabera, batzuetan muga kronologiko horiek gainditu beharrean aurkituko gara. Ehun eta piku urte horietan zehar mundua zeharo aldatu zen. Mendebaldeko Europa eta Ipar Amerikako Estatu Batuak epizentrotzat hartuta, industria-iraultza eta iraultza liberala barreiatu ziren mundu osoan zehar; ez beti elkarren parean, baina bai elkarren eskutik. Zer esanik ez, aldakuntza horiek mugatuak izan ziren, partzialak... Eta gaur egun bezalaxe, orduan ere, letra xeheekin idatzi beharreko hitza zen “iraultza”, iraultza bere osotasunean, hau da, botere-harremanak “azpiko gora” jartzea, ez dugulako oraindik ikusi. Bai, ordea, agintea giza talde batzuetatik beste batzuetara iragaten joan dela, eta bakoitzaren helburu eta indarren arabera, aurrera eta atzera eman direla pausoak. Zentzu horretan, euskaraz darabilgun “iraultza” hitza ez zait egokiena iruditzen “Re-Evolution” hitzak adierazi nahi duen prozesu baten bat-bateko bizkortzea definitzeko. Baina berba egokiagorik ezean, Industria Iraultza, Frantziako Iraultza eta Errusiako Iraultzari buruz hitz egiten jarraitu beharko dugu.

Eibarren kasuan, errebolta-iraultzarik ospetsuena 1931ko apirilaren 14ko egunsentikoa bihurtu bada ere, badago beste iraultza ezkutu bat, ez duguna ia eza-gutzen, ez zelako egun bakar batean burutu. XX. mendean errepublikazaletasunak

Eibarren eduki zuen indarra ulertzeko, ezinbestekoa da haren hastapenak ezagutzea, hau da, XIX. mendeko liberalismoak Eibarren izan zuen eboluzioari begiratzea. Eta liberalismoa diogunean, bi arloz ari gara: bata politikoa, konstituzionalismoari lotutakoa; bestea ekonomikoa, librekanbismoak aldarrikatzen zuen “*Laissez faire, laissez passer*” leinari atxikitakoa. Biak ere, Ilustrazioaren magalean hasi eta garatutako korrontek.

EIBARKO HERRIA XVIII. MENDEAREN ERDIALDEAN

Deskribapen fisikoa

1785eko otsailean, Gipuzkoako Diputazioaren bidez, *Real Academia de la Historiak* igorritako galdetegi bat ailegatu zen Eibarko Udaletxera, eta galdetegi horren erantzuna dugu XVIII. mendearen bukaeran herri armaginari buruzko deskribapenik fidagarriena. Txosten hori *Real Academia de la Historiako* artxibategian gordetzen da⁵, eta ez dago sinatuta. Amaieran, 1804an datatutako gutun pertsonal bat aurkitzen dugu⁶, Francisco Antonio Arrazainek —hain zuzen ere, 1785eko alkateak— Vargas Ponceri idatzitakoa —“*Diccionario*”aren arduradunetarikoa bat—. Horren arabera, F. A. Arrazain izan zen galdetegiari erantzutearen arduraduna, ida-

5. Real Academia de la Historiaren Artxibategia (RAHA), Fondo Vargas Ponce, 4-4199, 38.-57. or. Txosten hau Gregorio Mugicak ere aipatzen du bere monografian (Mugica, 1990: 106). Baina ematen duen signatura, beste hau da: “Coleccion Vargas Ponce”, Est. 20; gr. 3ª; nº 26. RAHn gordetzen den txostena 1862an Gorosabelek egindako deskribapenarekin konparatuz, ez dugu aldaketa handirik aurkitzen. Are gehiago, Gorosabelen idatziak Arrazainek egindakoaren kalko bat ematen du, idazkera aldetik eguneratuagoa, eta zehaztasun batzuk gehituta. Baina funtsean, herria fisikoki ez zen asko aldatu.

6. RAHA, Fondo Vargas Ponce, 4-4199, 81.-82. or. “Carta de Francisco Antonio Arrazain a Don. Joseph Vargas y Ponce, dandole informacion sobre cantidades de trigo, maiz y castaña recogidas en Eibar y Elgoibar”. Gutunaren bigarren zatiak tonu pertsonala hartzen du, eta interesgarria da, Arrazainen estuasun ekonomikoez gain, Eibarko jauntxoekin mantentzen zuen harreman pertsonalen berri ematen digulako.

«Sr. Don. Joseph Vargas y Ponce, Eybar Enº 3 de 1804. Agradezco a Vmd mui mucho su consejo de recurrir a mi Excmo. Pariente con repetidas suplicas, clamandole por tantas nezesidades en que me hallo, (...) por lo que haora un año recivi dados de su bolsillo 600 R. Vn. Si Vmd. como instruido de mi decadencia por las causas y motibos, se dignasse en tomar el trabajo de poner mis mas reverentes suplicas avorandose a Su Excª, fundare la esperanza de conseguir de su benevolencia algun socorro para alivio de mi dilatada familia (...) Participe sus expresiones a los Sres. D. Felix Antonio y su sobrino Buztindui, quienes estimaron muchisimo y es regular (¿) rindiendose a Vmd. muchas gracias por el afecto que nos profesa, se le escriba por los quatro primeros los mas sacrificados que a pesar de nuestras diligencias nos hallamos sin el menor socorro de S.M. (que Dios le guarde): al Indiano nada le he dicho por que haze algunos años que falto la confianza, y me mira de esquina, porque le dije algunas verdades y ... Sea Dios con nosotros, y al mismo le pido le guarde y le conceda los merecidos ascensos que le dessea su mas favdo. intimo seguro servidor QSMB. Fco. Antº. Arrazain». Arrazainek aipatzen duen “indianoa” Sebastian Zumaran zen, aurrerago ikusiko dugun moduan. Azpimarratuak nireak dira.

tzian aurkitzen ditugun akatsek RAHn gordetzen dena jatorrizkoaren transkribapen bat dela pentsarazten badigute ere.


1785ean, harresiak inguratzen zuen hiriguneaz gain, Eibarrek lau auzo zituen hirigunetik hurbil: mendebaldetik ekialdera Isasi, Ardanza, Musetadi (gaurko Muzategi) eta Arragueta. Harresia handia omen zen, etxeak baino altuagoa, —«un Murallon que atraviesa todo el pueblo en medio de El muy Elevado sobre las casas»—, sartzeko hiru ate nagusirekin. Horietatik bi, kaleetan zeudela dio txostenak, zein kale ziren zehaztu gabe, eta hirugarrena Elgetatik zetorren bidean. Harresiaren taxuketari buruz zehaztasun gehiago eskaintzen dizkigu Juan San Martinek, gutxi gorabehera Barrenkaletik (gaurko Ifar-kale?) Untzagara eta Portaletik (Elgetakalen) Ego ibairaino⁷. Sei kale zituen: hiru aldapatsuak —Barrenkale, Elgetakale eta Txiriokale— eta hiru lauak —Arrabal, Plazaberri eta “Ulsaga”, gaurko Fermin Calbeton—, seiak hareharrizko espaloiekin. Bi enparantza ere ba zituen: nagusia, «de corridas de toros y nobilladas»⁸, eta txikia «para bailes de tamboril en los dias Festivos»; eta bi ostatu.

Hiribilduan, XVI. eta XVII. mendeetan zehar Eibarko handikiek eraikitako jauregi eta palazioen aipamenarekin jarraitzen du idatziak: Urkizu, Unzueta eta Iñarrako dorretxeak, Indianokua eta Kontadorekua eraikinak... eibartarrek eta Eibarrek sasoi batean izan zuten ospe eta garrantziaren ezaugarri. Eta erdian, San Andres, sei kanpaidun eliza, koru zabal batekin, bere organo eta guzti. Toledoko elizak oparitutako liburu baten arabera abestu ohi zuten Eibarko eliztarrek. Eta altxorrik bitxiena, «... un viril un copon llamado pabellon y un Insensario los tres uniformes alhajas que fueron de Francisco Primero Rey de Francia y vendidas en Millan y compradas por D. Pedro de Inarza»⁹.


7. Zelaiaren liburutik jaso dut Juan San Martinen iritzia: «... la limitación del recinto amurallado antiguo debió de partir desde Barren-kale hasta Unzaga y desde Portale (en Elgueta-kale) hasta los bordes el río Ego. Las tres calles en cuesta eran: Ipar-kale, Elgueta-kale y Txirio-kale. Las llanas: Arraine-kale, Unzaga (hoy Calbetón) y tal vez Bilbo-zar. Las tres plazas: ¿Plaza Nueva o de los Mártires, la de Arraine-kale y la tercera la de Unzaga, frente a la torre renacentista? Es seguro que, poco más o menos, era esa la villa amurallada» (Celaya, 1970: 10).

8. 1844an zezenketak Untzaga plazan egiten ziren, eta beharbada, baita 1785ean ere. Zezenketa horiek San Joanetan egiten ziren, eta badirudi ez zirela urtean zehar gehiago erabiltzen. I. Karlistaldiaren gerraosteko testuinguru gordinean, etxebizitza premia zela-eta, zenbait herritarren eskakizunak ailegatu ziren Eibarko Udalera, eraikin xume horiek etxebizitza moduan erabiltzeko. Une batean gainera, oso kotizatuta egon ziren: Jose Ramona Sustaetak urteko 100 dukat eskaini zituen «por el probadero que esta detras de los toriles de la Plaza de Unzaga» EiUA, A, 1,1,13, 1844-9-23.

9. RAHA, Fondo Vargas Ponce, 4-4199.



El Eibar antiguo grabatua. Iturria: CELAYA OLABARRI, Pedro: Eibar. Síntesis de monografía histórica, 7. or.



Eibarko hiribilduaren plano XVIII. mendean. Iturria: SAN MARTIN, Juan: Antzinako Eibar, Etnografía gaiak, 67. or.

Eraikinen edertasunak hiribilduko handikien nagusitasun ekonomikoa adierazten bazuen ere, XVIII. mendearen erdialdean auzoetan oraindik hirigunean baino jende gehiago bizi zen. Auzoak diogunean, nekazari-auzoez ari gara, ez jada aipatu ditugun Isasi, Arrabal, Muzategi eta Arragueta hiriguneko auzoez. Udalerria bost nekazari-auzotan zegoen banatuta: Mandiola, Otaola, Gorosta, Arrate eta Aginaga, azken hau gainera, eliza eta guzti¹⁰. Manriquek dioenez, 1747an, Eibarko auzo

10. «tiene en su dicha jurisdiccion una Iglesia Parroquial intitulada de San Andres Apostol que es de Real Patronato y el actual agraciado Patrono d. Babil de Airezaga con el nº de ocho Beneficiados de los quales dos sirven de Parrocos y la Aneja de San Miguel de Aguinaga se sirve con el noveno Beneficiado que hace de Patrono en ella», RAHA, Fondo Vargas Ponce, 4-4199.

batzuek hiribilduak berak baino biztanle gehiago zituzten. Eta Arrateko ospakizunetan 4.000 pertsonatik gora biltzen omen ziren, inguruan zazpi-zortzi legoatik etorrita. Harresitik at, iturriak, errekek, errotak... Toponimia aberatsa eta bitxia eskaintzen digu Arrazainek, eta uraren bideak deskribatzean noizbait irudikatu izan dugun iragan bukoliko hartara eramaten gaitu:

El nº asibien de fuentes que tiene en su Jurisdiccion pasara de mas de ciento las que hay al Redor y cercania del Pueblo son seis de Aguas muy delicadas y Abundantes (...) Tiene Diez y seis arosios (sic) los cinco de ellos son molinos y Barc? que son el macharia, el de Aritain (sic), el de Zaturio, el de Urquizu y el de ybur y once menores que son el de Arrazola Sarasuy SansaBuru ulsaga chalchagua otaola arteguieta Anbeña Ardanza Asua y Sagarteguieta tiene un Rio llamado Egoque jun con el Rio deeva (sic) alqual se le agrega en Malzaga distante media legua del Pueblo desagua en el Puerto de Mar de deva se crian en dicho Rio anguilas de gusto muy delicado algunas truchas Barbos Loinas y Bermejuelas que son unos Pecesillos de gusto y olor de lenguados¹¹.

Eibarko biztanleria

1785erako, nekazari-auzoak eta hirigunea parekatuta zeuden biztanleen kopuruari dagokionez. Arrazainek eskaintzen dituen datuek hiribilduan bizi izandako gorakada demografikoa egiaztatzen dute «... con el nº de siete Personas de familia en cada una, una con otra asciende a ciento y setenta, y el de las caserías con las ciento quarenta y una de la Parroquia y las veinte y quatro de la aneja a ciento y sesenta y cinco»¹². Datu horien arabera, 1.190 biztanle bizi ziren hirigunean, eta 1.135 baserrietan: 2.325 biztanle guztira. XVIII. mendearen bigarren erdialdean hiriguneak izan zuen hazkuntza demografikoa armagintzak eskualde osoan izan zuen gorakadari egozten dio Garcia Manriquek (1961: 56, 57), Caracaseko Konpainia Gipuzkoarra Soraluzeko Erret Arma Fabrikaren arduradun izendatzearen ondorioz. Ikerlan honetan aztertuko dugun epean zehar, Eibarko udalerriak bizi izan zuen eboluzio demografikoari buruzko ikuspegi orokor bat edukitzeko, komeni da kontuan hartzea 1794ko erreketaren ondorioz atzerakada bat egon zela, baina 1803rako Eibarrek 1785eko kopuru berdintsua zuela (2.282 biztanle), eta 308 etxe (1785ean baino 27 gutxiago). Zalantzarik gabe, XIX. mendeko guduek hazkunde demografikoa eten egin zuten, baina, oro har, populazioak hazten jarraitu zuen, eta 1860an Eibar 3.815 biztanle izatera iritsi zen.

Jarduera ekonomikoari dagokionez, Eibarko biztanleria bitan banatzen zen:

El vecindario se ocupa la mitad del por entero quasi que son los caseros en labrar las tierras de Pan senbrar recoger alechos Argoma y oja para formar de ello abono para abonar dichas tierras, en el acarreto de vena desde el Puerto de Alzoba a las

11. RAHA, Fondo Vargas Ponce, 4-4199.

12. Real Academia de la Historiaren Artxibategia (RAHA), Fondo Vargas Ponce, 4-4199.

Ferreryas Carvones leña etc. cozer dichos carvones y caleras criar viveros de arvoles su plantacion esquilmo etc. la maior Parte de la otra mitad en dicha Real Fabrica de Armas de fuego y Blancas de S. M. y marchanteria de Escopetas muy finas y Pistolas de forma que las que se trabajan en esta dicha Billa igualan, e imitan en su finura a quantas muestras de maior primor han benido de toda Europa y otros instrumentos de Achas Azadas Palas picos Porras etc¹³.

Bi munduok —baserritarrena eta armaginena— uste duguna baino hurbilago bizi ziren elkarrengandik, eta itxura denez Eibarren, Elgoibarren eta Soraluzen baino hurbilago. Floridablancaren erroldak ematen dizkigun datuen arabera —1787an argitaratu zen—, Eibarko hirigunean bizi ziren hiru biztanletik bi nekazaria ziren; hau da, armagintzan aritu arren, nekazaritza-munduarekiko loturak mantentzen zituzten. Elgoibarren, hiriguneko biztanleak gutxiago izateaz gain, bitik bat baino ez zen nekazaria. Soraluzen, alderantziz, baserrietan bizi ziren armaginak, baina nekazaritzan jardun gabe. Uriartek eskaintzen digun taulan ezberdintasun horiek nahiko argi atzematen dira (Uriarte, 1998: 35).

	Biztanleria 1787an	Hiribilduan	Ez nekazaria
Elgoibar	2899	37,5	20
Eibar	2461	61,6	22
Soraluze	2043	76	77,5

JARDUERA EKONOMIKOAK

Eibarko baserritarrak

Interesgarria iruditzen zaigu Arrazainek “*caseros*” deitzen dituen horien jardueraren bikoiztasuna. Izan ere, XVII. mendean hasitako nekazari-zabalkundea —artoari esker— bukatuta zegoen XVIII. mendearen erdialdean, eta bazterreko lurren errendimenduak urriagoak izaten hasi ziren. Eibarko udalerrria bihitan defizitarioa zen; ez zuen ekoizten kontsumitzen zuen beste: «Esta dicha villa en que son muy limitadas y a costa de mucha Fatiga las Cosechas de trigo y maiz de castaña manzana nuez abichuela se surte comunmente todos los años de dicho trigo y maiz en la mitad del año de los mercados de las Plazas de Vitoria y Vergara y de los inmediatos Pueblos del Señorío de Viscaya». Abelazkuntzari dagokionez, Eibar sortu zenean paper garrantzitsua jokatu zuen arren¹⁴, XVIII. menderako jarduera hori zeharo ahulduta zegoen, zeren 1785ko txostenak zioenez «se surte igualmente

13. Real Academia de la Historiaren Artxibategia (RAHA), Fondo Vargas Ponce, 4-4199.

14. «Parece cierto que dominaba —en los orígenes de Eibar— el pastoreo. Las propiedades particulares eran mínimas. Casi todo era comunal. Cada caserío tenía algo de tierra. Algo más —por concesión real— los señores mayores o aundikis. Dominaban la ganadería y el pastoreo» (Celaya, 1970: 11).

así en todo el año de Carnes de Baca y carnero de varios Pueblos de dicho señorío y Castilla por el poco Ganado lanar que se cria en su dicrito (sic) en que ninguno se cria caballar». Baserriko labore guztiak egiten bazituzten ere, nekazari-ustiapena ez zen nahikoa bizirauteko, eta baserritarrek lan osagarriak egin behar zituzten.

XVIII. mendean, bizirauteko baliabide-iturri nagusia nekazaritza zen. Euskal Herri ozeanikoan nekazaritza-errendimenduak urriak zirenez, ohikoa zen biztanleen eta baliabideen arteko oreka haustea. Maiorazkoaren erakundeak, XV. mendetik aurrera hedatuz zihoan eran, familiaren ondasuna seme-alaben artean zatitu gabe, oso-osorik mantentzea ahalbidetu zuen. Baina XVII. mendeko krisialdi orokorraren ondorioz, lurra merkataritza-zirkuituan sartzen hasi zen eta prozesu horrek oinarritzko aldaketak bultzatu zituen garaiko euskal gizartean (Etxeberria *et al.*, 1984: 12, 13). Eibarri dagokionez, 1803an betetako galdetegiaren arabera, 43 nekazari lur-jabeak ziren, 150 maizterrak eta 20ren bat “*criados de labranza*”¹⁵. Hots, bost nekazaritik bat baino ez zen landatzen zuen lurraren edo bizi zen baserriaren jabe. Kontuan hartzeko datua dugu hau zeren euskal foruen arabera —teorian behintzat— eskubide politikoak gozatu ahal izateko lur-eremu edo etxe baten jabe izan behar baitzen.

Lurren eta baserrien jabeek aletan jasotzen zuten alokairuaren zatirik handiena, «... pues el régimen de arrendamientos vigente por entonces era una especie de aparcería o enfiteusis, en razón de la cual el propietario percibía una buena parte de su renta en fanegas de trigo y maíz» (Otazu y Llana, 1982: 18). Bernabé Antonio Egañak 1787an adierazitakoaren arabera, Gipuzkoako edozein nekazari-familiaren gari gehiena jabeari errenta ordaintzeko erabiltzen zen. Are gehiago: nekazari-familia baten dietak ez zuen garia barne hartzen, eta ogia baino gehiago taloa jaten zen. Arrazainen idatziak, ostera, beste hainbat barazki eta fruitu landatzen zirela adierazten digu: azaloreak, brokolia, azak, espinakak, zerbak, urazak, azafraila, perrexila, porruak, tipulak, berakatzak, babak, indabak, tomateak, piper handiak, meloiak, kalabazak, mailukiak eta «... esparagos (sic) de el tamaño mas extraordinario y gusto mas delicado que se han bisto en España»¹⁶.

Basoaren ustiaketa nekazaritza-ekonomiaren euskarri garrantzitsua zen, eta udal-araudietan basoa zaintzeari arreta berezia eskaintzen zitzaion, epez edo lekuz kanpo egindako egur-mozketak zigortuz edota moztu ahala landaketa berriak suspertzeko neurriak bermatuz.

Armagintza Eibarren

Deba bailarako herri gehienak bezala, Eibar ere burdinaren eraldaketa-prozesuaren inguruan sortutako udalerrria da. Izan ere, bailara aproposa zen zeregin

15. EiUA, B,2,1, “Interrogatorio Dep. Fomento y Censo de Poblacion. 1803”.

16. Real Academia de la Historiaren Artxibategia (RAHA), Fondo Vargas Ponce, 4-4199.

horretarako, burdinaren industria garatzeko beharrezkoak ziren baldintza guztiak betetzen baitzituen. Beharbada, burdin meategi nagusia itsasotik pixka bat urrutiegi zegoen, Arrasate inguruan. Baina Deba ibaia lagungarria zen haren garraioan, bailarako herriak lotuz gainera. Inguruko basoetan egur ugari zegoen, bai erregai gisa erabiltzeko, baita armen egurrezko piezak egiteko ere, eta errekek nonahi zue-denez, burdina lantzeko beharrezkoa zen indar hidraulikoa eskura zeukaten. Beste irtenbiderik ez zegoen, bailararen egitura estuak ezinezkoa egiten zuelako nekazaritza-ustiaketa hutsean oinarritutako ekonomia: lana nekeza zen eta emaitzak urriak¹⁷. XV. eta XVI. mendeetan zehar, burdingintza, eta zehatzago, armagintzan espezializatzen hasi zen bailara, Arrasate, Bergara eta Eibar zirelarik ardatz nagusiak. Udalerri ezberdinen arteko elkarlanari esker, armak, oso-osorik —muntatuta— irteten ziren Deba bailaratik, eta abantaila horri esker Gaztelako erregeen armaeskaria bertara bideratu zen. Austriarrek hasitako guduek espezializazio-prozesu hau areagotu egin zuten, eta XVI. menderako armagin eibartarren lehen aipamena aurkitzen dugu¹⁸.

Eibar, betiere, Soraluzeko Erret Arma Fabrikako (SEAF) partaide legez agertzen zen, eta hasiera batean arma zurietan espezializatu zen (pikak, lantzak, ezpatak, ezkutuak, dardoak, geziak...); geroago hasi zen, arma zurien fabrikazioa utzi gabe, suzko armak egiten. Soraluzekoa, fabrika bat baino gehiago, armen probalekua eta biltokia zen. Bertara eramaten ziren SEAF osatzen zuten lau herrietako tailerretan egindako armak, eta bertan aztertzen zituzten erregearen ofizialek, ontzat hartzeko edo errefusatzeko. Azterketa teknikoaz gain, SEAFek armen kontrola zeraman, hauek zenbatuz eta zainduz, harik eta erregearen esku jartzen ziren arte.

Erregeen babesak ondorio bikoitzak zituen. Lana ematen zuen¹⁹ baina ekoizpena mugatzen zuen, salbuespen gutxi batzuk izan ezik, armaginek ez

17. «Además, las laderas de los montes son demasiado abruptas en el curso medio del Deva para servir de base a una agricultura próspera. Sin caminos carreteros que, hasta el siglo XVIII, no llegaron al valle medio del Deva, sin grandes posibilidades agrícolas, estas villas de Placencia, Ermua, Eibar, Elgoibar fueron especializándose cada vez más en las armas, hasta que todo culminó bajo el favor de Karlos V con el reconocimiento oficial como núcleo o fábrica armera a todo lo que primeramente se había organciado con esfuerzo propio, y, más tarde, con el nombramiento de “Fabrica Real de Armas de Placencia” bajo Filipe II, en 1573. La constituían estos cuatro pueblos juntos y tenían como centro a Placencia» (García Manrique, 1961: 23-24). Manriquek Karlos V idazten duen lekuan, Joana “Eroa”ren eta Filipe “Ederra”ren semea, Alemaniakoa V.a, baina Espainiakoa I.a. Mugicak ere, kokapen geografikoa eta ingurugune fisikoa aipatzen ditu, Deba bailarako udalerrien sorkuntza azaltzeko: «Estos pueblos desviados de todo centro y construidos en parajes tan accidentados y estériles, acaso deban su formación a los primitivos armeros, y si no fueron ellos la causa de su fundación, fueron indudablemente el germen de todos sus progresos...» (Mugica, 1990: 79).

18. «La primera noticia concreta que demuestra la existencia de la industria armera en Eibar, nos la proporciona, bien escuetamente, Arantegi al escribir que en 1538 se encargaron quince mil arcabuces a Juan Orbea y Juan Ermua, de Eibar» (Mugica, 1990: 78).

19. «Vivirían unos ocupados en plantar árboles, otros en esquilmar montazgos y preparar leña, otros tendrían a su cuidado la fabricación del carbón, algunos se encargarían de conducirlo a las

zeukatelako erregea ez zen beste inorentzat lan egiteko askatasunik. Egoera horrek armaginen ekimenak murrizten zituen, eta nolabait, espainiar monarkiaren ibilbide militarren menpe uzten zuen haien etorkizuna. Horrela, XVI. mendeko oparotasuna krisialdi bihurtu zen XVII. mendeko bigarren erdialdean, austriarren dinastiaren erabateko gainbeheraren ondorioz. Borboitarrak izan ziren, 1700etik aurrera, SEAF bere krisialditik aterako zutenak²⁰.

1762an Eibarko Udalak zerrenda bat zuen, zeinean armagintzaren gremio ezberdinetan zenbat maisu eta ofizial zeuden zehazten zen. 170 armaginek osatzen zuten zerrenda horretan ez dira nortasunak azaltzen, gremio bakoitzean zebilen maisu eta ofizial kopurua baizik. Guztira zortzi gremio bereizten zituen: «forjadores, cajeros, chisperos, aparejeros, limadores, barrenadores, martilleros, rementeros». Ikusi dezagun zein eratar:

Forjariak	9
Kaxaginak	35
Txispalariak	13
Aparejuginak	35
Limariak	19
Barrenariak	7
Mailukariak	11
Errementariak	3
Guztira	132

Ez du zehazten ezkongabe zeuden 38 armaginek zein gremiotan lan egiten zuten, baina guztira 170 maisu eta ofizial zeuden. 1747an kopurua 113koa zela kontuan hartzen badugu, gorakada nabarmena izan zen hamabost urte horietan. Errementariak —“*rementeros*”—, barrenariak —“*barrenadores*”—, mailukariak —“*martilladores*”— eta limariak —“*limadores*”— gremio ezberdinetako kideak izan ziren baditu ere, berez, kanoiginen gremioko kideak ziren guztiak ere.

herreras y fraguas, no pocos hallarían el sustento agenciando fresnos para picas o nogales para cureñas de fusil (...) Hasta los ancianos y los niños ganarían su pan en los continuos recados enviados de unos talleres a otros» (Mugica, 1990: 78).

20. «Al decaimiento general de España en la segunda mitad del siglo XVII, va paralelo el decaimiento en la industria armera del Deva. Son los Borbones quienes sacarán de su estancamiento a la Fábrica de Armas de Placencia. En 1728 se funda la Compañía Guipuzcoana de Caracas, que controlaba la fabricación de armas de las villas armeras del Deva. Desde entonces hubo un comercio muy activo de armas de fuego hacia América, impulsado por dicha Compañía hasta 1748 y después por la Compañía de Filipinas, que se fusionó con ella. Miles de fusiles, carabinas, escopetas, sables, bayonetas, salían anualmente de la Fábrica de Armas de Placencia para ser enviadas a América» (García Manrique, 1961: 24).

Kanoiginez gain, SEAF beste hiru gremiotan zegoen sailkatuta, txispalariak, kaxaginak eta aparejuginak. Bakoitzak armaren zati bat fabrikatzen zuen: kanoiginek, kanoiak; txispalariak edo txispaginek —“*llaveros*”—, armek tiro egiteko hainbat sistema egiten zituzten²¹; kaxaginek —“*cajeros*”— armen egurrezko piezak egiten zituzten, kulatak, gehienbat; eta aparejuginen —“*aparejeros*”— lana zen, armak muntatzeko behar ziren pieza txikiak egiteaz gain, beste gremioek fabrikatutako atalak batu eta muntatzea. Behin armak muntatuta, Soroluzeko Errege Etxera²² bidaltzen ziren, eta erregearen maisu aztertzaileek ikuskatzen zituzten.

Herri bakoitzean gremio bakoitzak zuen indarra neurtzeko, bi iturri erabili ditut. Alde batetik, Uriartek eskaintzen dizkigu 1748ko kontrata edo “*asiento*”ari buruzko datuak. Kontrata horiek herri bakoitzak zuen ekoizpenerako ahalmenaren arabera banatzen ziren, eta datuok diotenez Soroluzek zuen nagusitasun osoa:

	Soroluze	Eibar	Elgoibar
Ekoizpena, errealetan	30.906.000	10.817.000	1.854.100

Ikusten denez, Soroluzek hirukoiztu egiten zuen Eibarko ekoizpena. 1790erako gauzak pixkatxo bat aldatuta zeuden. Ramiro Larrañagak ematen dizkigun datuen arabera, Eibar eta Soroluzeren arteko ahalmen produktiboak orekatuago agertzen dira, gremio bakoitzean lan egiten zuten langile kopuruari begiratzen badiogu behintzat (Larrañaga, 1970: 50). Soroluzen 385 armagin bizi ziren, eta Eibarren 267. Parekatze erlatibo hori ez zen Soroluzeko geldialdiaren ondorioa izan, ezpada Eibarren armagintzak izandako hazkuntzarena: 1762an 170 maisu eta ofizial baziren ere, 1790ean 267 langile ziren, oraingo honetan ikasle eta guzti.


	Soroluze	Eibar	Elgoibar	Ermua	Arrasate	Durango	Bergara	Guztira
Kanoig.	99	81	117	0	45	0	0	342
Txispa.	198	21	6	43	3	9	6	186
Apareju.	40	88	0	2	0	0	0	130
Kaxag.	43	78	1	2	1	0	0	125
Guztira	385	268	124	52	49	9	6	781

Gremio bakoitzeko langile kopurua, herriz herri.

21. «El gremio de los “*llaveros*” (...) abarcaba a los que construían los distintos sistemas de disparo de las armas de fuego: mecha, rueda, chispa, piston, etc., que se sucedieron hasta llegar a la percusión central, actualmente en uso. Como desde los últimos tiempos del s. XVI hasta el primer tercio del s. XIX los del gremio de *llaveros* construían preferentemente la “*llave de chispa*”, he optado por aplicarles la calificación de “*chisperos*” porque, además, con esa denominación se les citaba a los componentes en el aludido gremio» (Larrañaga, 2001: 22, 23).


22. Horrela deitzen zioten eta deituko diogu armak aztertzeko Soroluzen zegoen eraikin fisikoari. Baina SEAF erabiliko dugu lau herriek osatzen zuten ekoizpen-egiturari deitzeko.

Ikusten denez, 1790ean Eibarren eta Soraluzen lau gremioetako langileak zeuden, baina badago zer azpimarratu: Eibarren txispaginen arloan nabarmentzen den gabezia da aipagarriena, gainerako hiru gremioak nahiko orekatuta baitzeuden; Soraluzen, ordea, txispaginen gremioak gainerako hirurek baino langile gehiago biltzen ditu. Edonola ere, bi herrion nagusitasuna aparejuginen kopuruak bermatzen du, berauek baitziren armako pieza guztiak batzen zituztenak. Aparejuginik ez edukitzeak esan nahi zuen herritik inoiz ez zela arma bat muntatuta irtengo, eta beti piezak egitearekin konformatu beharko zela. Elgoibarrek bide hori hartu zuen, kanoigintzan espezializatuz; eta Ermuan txispaginak nagusitu ziren. Hurrengo grafikoan, herriz herri gremio bakoitzak zuen pisua islatzen da.




Gremio bakoitzeko langile kopurua, herriz herri —1790—.

Hurrengo bi grafikoek adieraziko digute nolakoa zen Eibarren eta Soraluzen zeuden gremioen arteko barne-oreka. Soraluzeren kasuan kaxagin eta aparejugin gutxi zeuden proportzioan, eta txispaginen gremioa oso zabala zen.



Eibarren, txispaginen urritasuna da aipagarriena. Gainerako hiru gremioetako langile kopurua nahiko orekatuta dago.



Ekoizpena bideratzeko armaginen gremio bakoitzak diputatu bat izendatzen zuen, eta lau diputatuek asentistekin lotzen zituzten espainiar monarkiaentzat egin beharreko kontratak. Soraluzeko Erret Arma Fabrikako zuzendaritzak honenbeste arma egiteko eskakizuna jasotzen zuenean, asentistekin biltzen zen, eta armok egitearen ardura baldintza ekonomiko hoberenak eskaintzen zizkion asentistaren esku uzten zuen. Asentistek gremioetako diputatuekin adosten zuten ordaindu beharreko prezioa, betiere SEAFeko zuzendaritzak eskaintzen zuena baino merkeagoa, eta hortik zetozkion mozkinak. Asentistek dirua aurreratu behar zuten, eta finantzaketa erarik arruntena, ekoitzi beharreko produkzioaren arabera lortutako kredituetan oinarritzen zen. Baina dirudienez, sistema horrek iskanbila etengabeak sorrarazten zituen, batez ere, asentisten eta gremioetako diputatuen artean. Eta liskar horien onuradun nagusia Caracaseko Konpainia izan zen²³, bere esku utzi baitzituen Filipe V.ak “*asiento*” edo kontrata guztiak. 1728an kakaoaren inguruan sortutako monopolio-sistema benetan errentagarria gertatzen ari zitzaion Caracaseko Konpainia Gipuzkoarrari, eta operazio horren bitartez, SEAFeko arma-ekoizpena gehitu zuen monopolio bidez ustiatutako produktuen zerrendara.

Caracaseko Konpainiaren ekimenak (biltegi berriak eraiki, SEAFeko zuzendaritza berriztatu...) arma-ekoizpena suspertu zuen: bere esku-hartzearen aurretik SEAFek 8.000 fusil egiten zituen urtean, eta Liejatik ekarri behar izaten ziren txisparik gehienak. Hamairu urte geroago 18.000 fusil fabrikatzen zituen, eta guztiak SEAFeko armaginek egindako txispekin. Horrez gain, Caracaseko Konpainiak

23. «Los pleitos que este sistema originaba eran constantes, sobre todo entro los asentistas y los gremios, pero la situación mejoró cuando hacia 1734 Filipe V nombró asentista exclusivo de las Reales Fábricas de Placencia a la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas de las Indias, que ampliaba así sus negocios centrados desde el año 1728 en el negocio del cacao» (Calvó, 1997: 54).

armak jaso eta berehala ordaintzen zituen, eta hori aurrerapen handia zen Errege Ogasunaren ordaintzen atzerapenetara ohituta zeuden armagintzat. Baina, era berean, Caracaseko Konpainiak armaginen gaineko kontrola estutu zuen, eta monopolioak saltzaileei zein erosleei prezioak inposatzeko gaitasuna ematen ziola aprobetxatuz, inoren izerditik aberastu zen²⁴. Caracaseko Konpainia 1785ean deuseztu bazen ere, Filipinetako Konpainiaren esku gelditu zen monopolioa, harik eta 1794an Konbentzio Gerrak herrialdeko ekonomia guztia hankaz gora jarri zuen arte. Eta hementxe etengo dugu, momentuz, Eibarko armagintzaren historia, XIX. mendeko aldaketak gerorako utziz.

ANTOLAKETA POLITIKOA

Auzokideen monopolioa

Lege Zaharreen udal-partaideak auzokide kategoria zeukaten biztanleen ordezkariak ziren, ez herriko biztanle guztienak. Auzokidea izateko bi baldintza bete behar ziren: kaparetasuna frogatzea eta gutxieneko jabetza bat izatea²⁵. Bi mekanismo horiekin, auzokideak bi eratako etsaiengandik babesten ziren. Kanpora begira, euskal lurraldeetan jaiok ez zirenen partaidetza zeharo mugatzen zen, odol-garbitasuna frogatzeak prozesu luzea eta edozeinen poltsikoak kudeatu ezinezko gastua suposatzen baitzuen. Barrura begira, auzokide izateko exijitzen zen gutxieneko jabetzak udal-gobernutik kanpo uzten zituen biztanle gehienak, hain zuzen ere (1766ko matxinadarekin gertatu zen bezala) jauntxoek boterea zalantzan jar zezaketekent herritarrak. Jabetza horiek gainera higiezinak izan behar ziren, udalkideek beren ondasunekin erantzuten zutelako udal-kudeaketan izandako iruzurren aurrean²⁶. 1754an Cano Mucientes korrejidoreak udal-hauteskundeetarako emandako eta euskaratutako araudi edo ordenantzek udalkideei buruz ziotenez, «... eta onec

24. «Si la Compañía trajo la actividad y riqueza al valle del Deva por sus crecientes pedidos, este monopolio tenía su parte negativa. La Compañía determinaba el precio, que era bajo, y más tarde ella misma colocaba el arma en el mercado. Por esta acción de intermediaria se quedaba con gran parte del beneficio. Esto degeneró en una situación tirante, como ocurría al otro lado del Océano, en Venezuela, con respecto a los productos agrícolas. Al mismo tiempo que daba trabajo y revalorizaba el producto irritaba con su control a los pueblos». Ramiro Larrañagak ere aipatzen ditu esku-hartze horren ondorio negatiboak: «... su ingerencia supuso un mayor control sobre los armeros fabricantes y se lucró la compañía con unas comisiones sobre los precios de las armas construidas» (Larrañaga, 2001: 25).

25. «En Guipúzcoa y Vizcaya esta calidad (de vecino concejante) requería ser hidalgo y millarista. Para lo primero bastaba con probar la oriundez vasca (..), aquellas personas que no habiendo nacido en el país aspiraban a disfrutar de la calidad de vecino concejante, tenían que acreditar su hidalguía mediante un costoso pleito seguido contra el concejo del pueblo en que desearan avecindarse (...). Pero para figurar como vecino concejante no bastaba con ser hidalgo, había que ser también millarista. El nivel de renta exigido variaba en cada concejo» (Rubio Pobes, 1997: 85).

26. Hara Larramendik zioena Gipuzkoako udalkideei buruz: «Aunque todos sean nobles no pueden entrar en los cargos honoríficos de la república; para eso, además son menester los millares que llaman, esto es, tanta hacienda, que sirva de seguridad a la república para sanearse de los daños que puede causarle un mal cargo-habiente» (Larramendi: *Corografía de Guipúzcoa*, 155. or.).

izatten badabe quiebraric, edo Jatten baditube errico errenttac, Electtoriac, eurac izan biaco dabe la aren faltta gustichac Zergaitterren, Errichac esttabela biar perjuicioric es quiebraric da esttabela Pagauco, electtoriareen Culpatic, berac baiño da Conttuban egon ditiala»²⁷. Neurri profilaktiko bikoitz hori erabiliz (kaparetasuna eta ondasun higiezinaren jabetza), jauntxoek euren boterea bermatzea lortu zuten luzaroan.

Gipuzkoako agintarien ikuspegiaren arabera herrialdeko biztanleria bost kategoriatan zegoen banatuta, bakoitzaren jatorri eta ondasunen arabera. 1773an, gal-detegi zehatz bat bidali zitzaion Gipuzkoako alkate guztiei, bakoitzaren udalerriko populazioa honako parametro hauen arabera sailkatzeko eskatuz: lehenengo zutabean, jatorriz gipuzkoarrak zirenak —“*originarios de Guipuzcoa y de sus casas solares*”—; bigarrenean, jatorriz Gipuzkoatik kanpokoak izan arren —“*advenedizos nacionales*”—, kaparetasuna frogatuta edukitzeagatik udalean eskubide politikoak gozaten zituztenak; hirugarrenean, jatorriz Gipuzkoatik kanpokoak, baina —ahal izan arren— kaparetasuna frogatu gabe zeukatenak; laugarrenean, jatorriz Gipuzkoatik kanpokoak, nahi izanda ere kaparetasuna frogatzerik ez zeukatenak; bosgarrenean, “*advenedizos extranjeros*”, hau da, estatu espainiarretik kanpokoak. Tamaina horretako esfortzua hartu izanak adierazten du zer-nolako beldurra eta kontrolerako grina piztu zen 1766ko matxinadaren ostean herrialdeko agintariengan. Eta kasu honetan gehiago interesatzen zaiguna, iturri paregabea bihurtzen da Eibarko biztanleen erradiografia kolektiboa egiteko orduan, Eibarko zerrenda Gipuzkoako Artxibategi Orokorreko zuzendariaren eskutik jasotzeko zortea izan bainuen²⁸.

Zerrenda hori 1786an berriztatu zen, gipuzkoarren taldean, jatorriz eibartarrak zirenak —hau da, “egiazko eibartarrak”— bereiziz²⁹. 1786ko zerrendari esker

27. Gregorio Mugicak araudi guztia dauka transkribatuta (Mugica, 1990: 464-467).

28. GAO, SS 13.

29. GAO, SS 12. Lehen zutabeko izenburuak zera dio: «Vecinos que se hallan en posesión de su nobleza en la citada villa de Eybar, admitidos por tales y a los oficios y cargos honoríficos de ella, los que entre ellos poseen *millares como descendientes de las casas y solares conozidos, existentes en la misma villa sin que tengan formalizadas sus Ydalguias*». Letra etzana neurea da. Gipuzkoar jatorriko kapareek bigarren taldea osatu zuten: «Originarios de esta Provincia de Guipuzcoa y descendientes de sus casas y solares que se hallan en posesion de sus Ydalguias, admitidos a la vecindad y oficios honoríficos»; hirugarrenean, gipuzkoar ez kapareak agertzen dira: «Los que se hallan conceptuados por originarios de esta misma Provincia de Guipuzcoa, pero no tienen hechas sus Ydalguias ni se hallan recibidos por vecinos, con distincion de los que de ellos se consideran con medios para costear su formal prueba (3a) y de los que al parecer carecen de medios para ello (3b)»; laugarrenean, «Advenedizos Nacionales que se hallan en posesion de su Nobleza e Ydalguia admitidos a la vecindad y al goze de los empleos y cargos honoríficos, los que entre ellos poseen millares», gehienak bizkaitarrak; bosgarrenean, «Advenedizos Nacionales que no tienen acreditada su nobleza; con distincion tambien de los que entre ellos se consideran con medios para su formal prueba (5a), y de los que al parecer carecen de dichos medios (5b)»; eta seigarrenean, «Advenedizos extranjeros con igual distincion de los que entre ellos se hallan en posesion de su nobleza y de los que se consideran sin medios para poderla justificar». Beraz, auzokideak lehen, bigarren eta laugarren taldekoak ziren.

jakin dezakegu ezen Areta, Arizmendi, Eiguren, Gisasola, Pagaegi edo Suinagatarrak —besteak beste— zirela benetako eibartarrak, eta XVIII. menderako udal-boterea galtzen ari zirela Gipuzkoatik etorritako Ibarzabal, Larrañaga edota Laskuraindarren aurrean, baita herrialdetik kanpo ailegatutako Bustindui, Olabe edo Baskarandarren aurrean ere. Sailkapen horrek abiapuntu bat eskaintzen digu. Hasteko eta behin, 1786an Eibarko auzokide gisa onartuta zeudenen kopurua 318koa zela zehazteko balio digu: 144 jatorriz eibartarrak, 127 Eibartik kanpoko gipuzkoarrak eta 47 Gipuzkoatik kanpokoak, gehienak bizkaitarrak. Beste alde batetik, XVIII. eta XIX. mendeetan zehar Eibarko Udaleko partaideen nortasunarekin alderatzen badugu, sasoi desberdinetan biztanle multzo bakoitzak udalean eduki zuen eragina jakin dezakegu. Adibidez, 1755-1766 epean zehar aritutako 39 udalkideei dago-kienez, 22 jatorriz eibartarrak ziren, bost gipuzkoarrak eta 10 Gipuzkoatik kanpokoak, bizkaitarrak ziur asko. Gainerako bien abizena ez da 1786ko zerrendan agertzen, baina dakigunez Juan Antonio Soroetari 1742an onartu zioten kaparetasuna (Mugica, 1990: 285-286)³⁰, eta Andrés Espila korrejidoreak izendatutako diruzain agertzen da 1762an. Beraz, ondoriozta dezakegu kaparetasuna frogatzea ezinbesteko baldintza zela auzokide hautagaien taldean onartuak izatea eskatzen zuten biztanleentzat.

Zerrenda osoa 464 lagunek osatzen dute, baina oraingo honetan jada datubasean sartuta nituen pertsonaiei buruzko datuak baino ez ditut jaso. Guztira, 246 pertsonaiaren erregistroak osatu ditut kaparetasunari buruzko informazio honekin, eta ekarpen interesgarria izan daitekeelakoan, kapituluaren bukaeran eskaintzen dut eranskin gisa.

Errejimentuaren egitura

Antzinako Erregimeneko udalaren egitura aztertzerakoan, badago lehenbait lehen argitzea komeni den gauza bat, anakronismoetan erortzeko arriskua saihestu nahi badugu behintzat. Gaur egun udala, alkateak eta zinegotziek osatzen dute. Zinegotzi guztiek kategoria bera dute eta eginkizun berdinak bete ditzakete; alkatea bera, zinegotzi bat da, zinegotzien gehiengoak alkatetzara eraman duena. Gaur egun gehiengo ordezkatzen duen alderdiak edo alderdiek hartzen dute udala zuzentzearen ardura eta, gehienetan, gutxiengo direnak gobernu-ardurarik gabe gelditzen dira. Lege Zaharrean³¹, ordea, udal-partaide guztiek parte hartzen zuten udal-gobernuan, baina bakoitzak bere izaera, gaitasun eta eginkizun bereziak. Udalari deitzeko erabiltzen zen hitzak berak (“*Regimiento*”) gaur egungo udalarekin zegoen ezberdintasunaren berri ematen digu, haren eginkizuna herriaren etorkizuna gidatzea edota bideratzea zela adieraziz, eta ez horrenbeste herri horretako auzoen ordezkaritza-lana betetzea. Auzoen ordezkariek baino gehiago, herriaren

30. 1759an Juan Carlos Areizagaren —San Andres elizako patroia— ordezkaria zen, EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak* (1756-1768), 1759-3-4.

31. Lege Zaharra eta Antzinako Erregimena sinonimotzat erabiliko ditut ikerlan honetan.

buruan jartzen diren auzoak dira, “*capitulares*” hitzak aditzera ematen duen modura. Kapitularrak dira alkatea, errejidoreak eta sindiko prokuradorea, haiek direlako urte horretan herriaren buruan jarriko direnak, baina bakoitza bere gaitasun eta izaera bereziarekin.

Eibarko Errejimentua lau partaidek osatzen zuten 1755ean. Haren buruan alkatea, bere Erret Makilarekin, udalerrri mailako aginte politiko gorena eta eskuduntza judizialaren³² ikurra. Izan ere, alkatearen eginkizuna zen eibartarren artean sortzen ziren auziei buruzko lehen epaia ematea³³, baita kanpotik etorritako beste botere judizial batzuetatik herritarrak babestea ere³⁴. Elgoibarko udal-ordenantzek diotenez, ahozko epaiketetan alkateak alde biak deitzen zituen eta bat-bateko erantzuna ematen zuen. Alkate izateko baldintza hauek bete behar ziren: «... persona onrauba, Idalgua Aberaza, da Erraizak daucasana, da gizon Abonauba da oficio Charric esttaucana, baita bere estteila izan oficialic edo oficialeric soldau danic, Erregue maggesttatiaren errejimentuban serbicen dabenic estta bere Idacortten da escribicen eztaquichanic eta bardin Iotten badau, alacoric, izangodabela, vimilla marabidiren multia, da Iaquina egondella» (Mugica, 1990: 464-467).

Alkatearen ostean, sindiko prokuradore orokorra genuen kargurik garrantzitsuena. Bere eginkizun nagusiak hauek ziren: udalerrriaren izenean auziak aurrera eramatea; kalean salduko ziren kanpoko jan eta edateko horniduren prezioa eta tasa ematea; udaletxeaz, kartzelaz, alondegiak eta kaleen garbitasunaz arduratzea; auzokideen zerrendan sartzea eskatzen zutenen agiriak aztertzea edo ikerketak burutzea...³⁵ Sindikoak ez zeukan idazten jakin beharrik³⁶, eta agintaldiaren hasieran

32. Soria Seséren ustez, arlo judizialean betetzen zuen eginkizun hau zen alkate karguari nortasuna ematen zion ezaugarri nagusia: «La función de juez ordinario es precisamente lo que da carácter al oficio de alcalde, situándolo en una esfera, la jurisdiccional, distinta a la de los otros oficiales del concejo que, en cuanto órganos unipersonales, se mueven exclusivamente en la gubernativa» (Soria, 1984: 60).

33. Alkateak emandako sententziarekin ados ez zegoenak korrejidorearengana jo behar zuen, hau da, erregearen ordezkaria Gipuzkoan. Eta korrejidoreak emandakoa ere ez bazuen onartzen, helegitea Valladolideko Chancilleriara bideratzeko aukera gelditzen zitzaion. Baina noski, horretarako behar zen dirutza ez zegoen edozeinen eskura.

34. «Baita bere errico alcatiac esttaichala permitidu eguittia execucinoric bere flogedades Dattozianian Juezac Campoetic, inor arzera bere Jurisdiccianuan, o pezquisa eguitera edocin bere persona, ya Cedulequin, ó probisinuequin segatic lelengo biardabe izan instrumetubones exhaminaubas, Juntan o Dipputaconuan, da emonbiar Jaquiela, uso correspondizen dan legues». Beraz, Foru-baimena edo “Pase Foral”aren filosofia ez zen mugatzen herrialde mailako auzietara; baita udalerrietakoetara ere.

35. Sindikoaren beste eginkizun eta gaitasunen artean honako hauek: «... que en nombre y representacion de esta insinuada villa su concejo y otorgantes pueda defender y defienda a ella en quantto se le ocurriese en este presentte año, Cibil o criminalmente ante quales quiera jueces, Justicias y tribunales que combenga, asi demandando como defendiendo en quales quiera assumptos que sean (...) para hacer permuttas de tierras...» EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1781-1-14. 1844ko akta batek zehazten digunez, «...confirio a D. Ignacio Areta de Mendigoitia sindico

udalak 50 peso aurreratzen zizkion sortzen ziren gastuei aurre egiteko³⁷. Eta azke-
nez, bi errejidoreak zeuden. Horien betebeharrak nagusia herri-lur eta propioen gestioa
kontrolatzea zen. Gaur egungo udaleko partaideekin alderatuta, Lege Zaharreko
udalekoek beren ardurak zuzenean betetzen zituztela konturatzen gara. Alde batetik,
udal-langile kopurua askoz urriagoa zelako; eta bestetik, boterea pertsona konkre-
tuengan gauzatzen zelako kontzientzia askoz indartsuagoa zelako, eta autoritate-
aren ordezkarien presentzia fisikoa ezinbestekoa zela zenbait arazo edota istilu
konpontzeko orduan.

Udala edo errejimentuaren egitura, antzekoa izan arren, aldatu egiten zen herri
batetik bestera bai udalkideen kopuruan, baita osatzen zuten karguen izaeran ere.
Elgoibarren, adibidez, alkateak eta bi sindiko piel errejidorek osatzen zuten erreji-
mentua 1755ean (Uriarte, 1998: 205); hau da, Eibarren baino partaide bat gutxiago
izateaz gain, sindikoaren eta errejidoreen eginkizunak nahastuta edo pilatuta ager-
tzen zaizkigu; Irungo Udalean, zazpi kapitular aurkitzen ditugu 1788an (Iparragi-
rre, 2001: 49): alkatea, sindiko orokorra, hiru errejidore eta bi juratu. Juratuen ze-
regina alkateari laguntzea zen, horrek epaile-lana betetzen zuenean. Eibarren
“*jurados ejecutores*” deituriko karguen aipamena aurkitzen dugu, 1600eko udal-
hauteskundeetan. Baina akta horretan ez denez errejidoreen aipamenik egiten,
“*jurados ejecutores*” haiek geroago errejidore deituko zirenen eginkizun berdinak
izango zituztela uste dut. Juratuen aipamena, 1768ko udal-hautaketan aurkitzen
dugu berriz³⁸, oraingoan errejidoreengandik bereizita, eta ustez behintzat, arlo
judizialera mugatutako eskuduntzekin. Baina Eibarren juratuak sekula ere ez ziren
errejimentuko kideak izan. Adibide hauetatik ondoriozta dezakegunez, Antzinako
Erregimeneko udalen osaketan aniztasuna zen nagusi, bai kargu bakoitzaren
eskuduntzan, bai deituran; eta aniztasun hori erakunde hauen sortze-prozesuan
indar autoktonoek izandako esku-hartze zuzenaren seinalea da.

Udalkideen hautaketa modua

Lege Zaharrean udal-karguen iraupena urtebetekoa zen. Eibarren, ohituraz,
Done Mikel egunean (irailaren 29an) gauzatzen zen udalkideen izendatzea, baina

procurador el poder acostumbrado para que pueda sacar a su debido tiempo a remate los abastos
públicos de esta Villa; para seguir los pleitos de Idalguias y demas que ocurran en ella durante el
presente año, siendo testigos Esteban de Acha, D. Martin Ibarzabal y Ramon Urriola; del mismo
modo se confirió al indicado Mendigoitia amplia comision y facultad como lo han tenido sus
antecesores para otorgar las Es-crituras pertenecientes a esta Villa, haciendo permutas y demas actos
que redunden en beneficio de ella segun lo disponen las leyes y reglamentos» EiUA, A,1,1,13, *Akta
Liburuak (1842-1850)*,1844-4-1.

36. 1759ko martxoan Francisco Antonio Bustindui sindikoak ez zuen akta sinatu, idazten ez
zekielako, EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*,1759-3-4. 1827ko maiatzaren 20an, Bascaran
errejidoreak eginiko protestari erantzunez, Mallagarai lizentziatuak sindikoak ez zeukala irakurtzen
eta idazten zertan jakin erantzun zuen. EiUA, A,1,1,10, *Akta Liburuak (1824-1828)*.

37. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1767-1-11.

38. EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1768rako udal-karguen hautaketa.

1761ean hautaketa Urteberri-egunera iragatea erabaki zuten³⁹, herrialdeko udalerrri gehienetan egiten zen bezalaxe, bide batez esanda. Kapitularrak aukeratzeko prozedura nahiko aldatzen zen herri batetik bestera⁴⁰. Eibarren, XVII. mendera arte, udal-karguak izendatzeko orduan arreta berezia eskaintzen zitzaion auzoen eta hirigunearen arteko orekari. Urte batean auzoetako auzokideek hiriguneko auzokideen artetik hiru hautagai proposatzen zituzten kargu bakoitzerako, eta zozketaren bidez irteten zen kargu bakoitza bete beharko zuenaren nortasuna. Hurrengo urtean, alderantziz: hiriguneko auzokideek proposatuta, auzoetakoak sartzen ziren udal-karguetarako zozketan⁴¹. Edonola ere, sistema horrek aldaketa garrantzitsuak jasan zituen XVII. mendean zehar, eta 1651. urtean, auzoetako eta hiriguneko auzokideen arteko bereizketa bukatutzat joz, XIX. mendera arte iraungo zuen hautaketa-sistemaren oinarri nagusiak ezarri ziren.

Agintaldia bukatzen zuen sindiko orokorrak hiru hautesle —“*electores*”— izendatzen zituen, eta aparteko gela batean bilduta, hiruren artean adostutako zazpi auzokideren izenak idazten zituzten, bakoitza txartel batean. Ondoren, zazpi txartelak lurrera botata, zozketa egiten zen: lehenengo ateratzen zena, alkate izendatzen zuten; bigarrena, alkatearen ordezkoi; hirugarrena sindiko; laugarrena, sindikoaren ordezkoi; bosgarrena eta seigarrena errejidore, eta zazpigarrena, horien ordezkoi, bakarra. Beraz errejimentua lau partaidek osatu arren, hiru ordezkoi ere izendatzen ziren. Horrez gain, komeni da ohartzea Lege Zaharrear kargu publikoak aukeratzeko orduan sistema misto bat erabiltzen zela, alegia, izendatzea (hautesleena), bozketa (karguen proposamena) eta zozketa⁴² (karguen kategoria) nahasten zituen sistema.

39. «Dicho día acuerdo la villa que de aqui adelante baia a Aguinaga por Alcalde el primer rejidor que saliere como hasta aqui sin embargo de la mudanza de elecciones de San Miguel a Navidades» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1761-9-27.

40. «Cada ayuntamiento vizcaíno, alavés o guipuzcoano se regía por sus propias ordenanzas, siendo diferentes en cada uno de ellos los requisitos exigidos para formar parte del mismo, el sistema electoral utilizado e incluso su composición» (Rubio Pobes, 1997: 85). Lourdes Soria Sese harantzago doa baieztatzen duenean herri bakoitzean erabiltzen zen hautaketa moduak interes konkretu batzuekin zerikusi zuzena zuela, eta interes horien arabera, herri berean ere, hautaketa modu desberdinak erabiltzen zirela, oligarkiari komeni zitzaionaren arabera (Soria, 1984: 166).

41. «... por que en esta tanda se ha de elegir conforme a la ordenanza alcalde que sea de dentro el cuerpo de la dicha villa es a saber de la puente de Barrencalea hasta los tres portales de Ulsaga calle de Elgueta y calle de Chirio o calle Somera por haberlo sido en la tanda pasada de fuera del cuerpo de la dicha villa y por que conforme a la misma ordenanza los electores que han de elegir han de ser de fuera de la dicha villa es a saber cofradías e valles de su jurisdicción los cuales se han entendido siempre y ahora se entiende en esta manera» (Mugica, 1990: 191). Hautaketa-prozesu osoa hemen azaldutakoa baino konplexuagoa zen, auzoetako edo hiriguneko hautesleak, kargua utzi behar zuen alkateak izendatzen zituelako. Gai honen inguruan informazio zehatza eskaintzen du Mugicak bere monografian (Mugica, 1990: 190-200).

42. Zozketari “*insaculación*” deitzen zaio, Eibarren txartelak lurrera botatzen baziren ere, beste leku batzuetan txartelak pitxer edota saku batetik ateratzen zirelako. Soria Sesék dioenez «la insaculación ofrecía la ventaja de ser más difícil de manipular, y por consiguiente menos apta a que las elecciones obedecieran a estrictos intereses particulares, al garantizar a un mayor número de vecinos

1768rako sistema hau zertxobait aldatuta zegoen⁴³, baina, oro har, udalkideen hautaketa-prozesua aipaturiko hiru zutabeetan oinarritzen zen. Kasu honetan, hiruren orde, 10 hautesle izendatzen ziren, baina ez da azaltzen nork eta nola⁴⁴. Lehenengo hirurek alkateen proposamenak egiten zituzten; hurrengo hirurek sindikoena; eta azken laurak errejidoreena. Eta ondoren, «... haviendo pasado a esta dicha sala en ella y sobre la mesa del Aiuntamientos se hallava una jarra de platta y en ella puso dicho sr. Alcalde los suios y por lo consiguiente los demas, y haviendolos rebuelto en el y derribado al suelo alternatibe los lebanto un tierno muchacho y dezian asi: Señores Alcaldes. El primer charttel decia...». Lehenen ateratzen zen txartelak hurrengo urterako alkatearen nortasuna adierazten zuen, eta hurrengo biek alkateordeena. Horien ostean, proposatutako sindikoen arteko zozketa egiten zen (titular bat eta bi ordeko), eta azkenez errejidoreena (bi titular eta bi ordeko). Ordezkoek ez zuten errejimentuan parte hartzen, titularrak faltatu ezik.

1813. urterako informazio zehatzagoa lortu dugu. Badirudi hautesleak zozketaz irteten zirela, eta horietariko bakoitzak pertsona baten proposamena egiten zuela kargu bakoitzerako. Ondoren proposatuen arteko bozketa egiten zen, eta boto gehien lortzen zuena alkate izendatzen zuten, eta hurrengo biak 2. eta 3. alkate. Prozedura berdina erabiltzen zuten kargu guztietarako⁴⁵.

Aipagarria iruditzen zait, proposamenak egiteko orduan hautesleei ezarritako baldintzak oso zorrotzak izan arren⁴⁶, ohikoa zela nork bere familiako kideak aurkeztea udal-karguetarako. Horrela gertatu zen 1768an, Domingo Olabek bere

la posibilidad real de acceder a los cargos públicos, lo que por otra parte se acordaba mejor con el originario espíritu democrático municipal» (Soria, 1984: 172). Hori egia zen, Irunen bezala, hautesleak izendatzeko zozketa auzokide guztien artean egiten zenean. Baina ikusten ari garen bezala, Eibarren, zozketa hautesleek proposatutakoen artean burutzen zen, titular eta ordezkoen artean bereizteko helburu bakarrekin. Argi dago beraz, hitz beraren atzean —“insaculación”, kasu honetan— errealitate ezberdinak ezkutatu ahal direla, eta terminologia bateratu bat erabiltzeak dakartzan arriskuak ekiditeko, ezinbestekoak direla udal-iturrietan oinarritutako ikerketak.

43. Eibarko Udaleko Akta Liburuek ez digute zehazten udal-karguen hautaketa-prozesua nola egiten zen. Informazio hori eskuratzeko, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)* erabili dugu: EiUA, A,2,5.

44. Honen inguruan aurkitu dugun erreferentzia bakarra 1769rako udalkideen hautaketaren aktan jasotzen dena da: «Incontinenti los dichos señores alcalde y sindico con mi el escribano pasaron a un aposento separado de la sala; y fueron llamados los Electores por Barrios» EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1768-12-31. Dirudienez, 1797rako alkateak izendatzen zituen hautesleak, sindikoaren parte-hartzerik gabe, Bergarako Udala Artxiboa (BUA), C-127, 94.

45. EiUA, A,1,2,1,2, *Borradores de Actas (1811-1839)*, 1813-7-7.

46. «... los dichos señores Alcalde, Sindico e io el escribano pasamos a un quarto separado que ay de esta dicha sala a un lado de ella, y haviendo hecho llamar a los Electores, uno en uno, y conforme iban biniendo su mzd. dicho sr. Alcalde les fue rezibiendo juramento en forma de derecho y sobre la Santa Cruz que trae en su real vara para que so cargo de el hiziesen eleccion de sujetos capaces para la justizia y rejimientto segun les dictase respectivamente su conciencia sin pasion alguna, y que de antes no estan hablados ni sobornados para la dicha Eleccion...» EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1768rako udal-karguen hautaketa.

semea proposatu zuenean —Domingo, berau ere— alkate kargurako. Akta berean, Andres Atxa Iriondok Andres Atxa Gisasola proposatu zuen sindiko orokorra izateko, eta Manuel Joaquin Arizmendik Francisco Antonio Arizmendi errejidore kargurako. Abizen berak eduki arren, ezin izan dut ziurtatu familia berekoak ziren ala ez. Baina Olabe aita-semeen kasua ezagututa, ez litzaidake batere harrigarria irudituko. Beraz, juramentuak juramentu, badirudi hautesleek ez zeukatela oztopo handirik beren tankerako udalkideak aukeratzeko orduan⁴⁷. Hautesleen esku gelditzen zen boterearen tamaina ikusita, hautaketa-sistema honen zabaltasuna neurtzeko orduan argitu beharreko lehen inkognita hautesleak nola izendatzen ziren jakitea dugu.

Udalkideak izateari uzten ziotenek hiru urteko tartea —“*hueco*”— gorde behar izaten zuten berriz izendatuak izateko. Udalkide ohiak alde batera uzte horren helburua karguen aldaketa bermatzea zen, luzaroan pertsona berberak boterean mantentzeak suposatzen zituen ustelkeria-arriskuak ekiditeko. Hiru urteko tartea errespetatu ez izana aurpegiratu zioten, hain zuzen ere, Ignacio Maria Ibarzabalek⁴⁸ eta Pedro Antonio Ezenarrok Juan Andres Lascuraini 1777ko abenduaren 31ko udal-hautaketan: «... digeron devia ser nula la Eleccion hecha en el citado Lascurain; lo uno por que desde que anteriormente fue Alcalde de esta villa hasta el presente dia no havian pasado los tres años de hueco que eran de ordenanza y costumbre y lo otro porque la Eleccion segun estava dispuesto no se devia egecuttar en el dia de oy sino en el de mañana primero de Enero, y por nula la protextaban y pedian Testimonio»⁴⁹.

Lekuz kanpoko protesta hori atzera bota zuten, udalbatzak lehenengo, eta diputazioak gero, Laskurain, 1774an alkate izana 1778ko urtarrilaren leian jabetu behar zelako alkatearen makilaz, apo-apoan bazen ere, hiru urteko tartea beteta. Aurkezten zuten bigarren arrazoiak —lehenengoarekin kontraesanean egoteaz gain— ez zuen indarrik, udal-hauteskundeak maiz egiten zirelako abenduaren 31n. Beraz, nire ustez, pertsonaia haien arteko iskanbilaren benetako arrazoia beste

47. Zentzu horretan oso interesgarria izango litzateke hautesleen eta proposatuen arteko harremanari buruzko ikerketa sistematiko bat egitea, hots, urteak joan urteak etorri, hautesle karguak zein familiak edo pertsonak monopolizatu zuten jakitea; eta era berean, zelako loturak sortzen ziren auzokideen artean, urte batean urlia hautesle delarik sendia proposatu bazuen, ea sendia hautesle suertatzen zenean urlia proposatzen zuen. Zoritxarrez, ikerlan honetan ez dugu bide hori sistematikoki jorratu, baina bai aurkikuntza bitxiak egin. Adibidez, hautesleek elkar proposatu zezaketela: 1760ko inozente egunean 3. alkatea zaharregia zela-eta, Pedro Pagaegi eta Juan Andres Laskurain hautesleen esku gelditu zen haren ordezkoa proposatzea. Pagaegiren txartela atera zen zozketan, eta Laskurainen izena zegoen idatzita. Auskalo zein izen idatzi zuen Laskurainek bere txartelean... Pedro Pagaegi, beharbada?

48. Ignacio Maria Ibarzabal XIX. mendean Eibarko liberalen aitzindari izango zen Gabriel Benito Ibarzabalen aita zen. Juan Andres Lascurainen arrastoa ere hurbiletik zaintzea komeni zaigu, ikusiko dugun moduan Konbentzio Guduan zehar funtsezko papera jokatzea egokituko baitzitzaion.

49. EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1777-12-31.

nonbait aurkitu behar dugu. Edonola ere, Ibarzabal eta Ezenarroren protestak zenbait auzokideren arteko ezinikusien berri ematen digu.

Bazegoen hiru urteko tartea saihesteko aukera ematen zuen hautaketa era bat: aho biziz izendatzea —“*por aclamacion*”—. Sistema hori abagune berezietan erabiltzen zen, udalerriari mesede handiak egindako jauntxoren bat eskertzeko, gehienetan⁵⁰. Halakoetan, auzokideetarikoa batek jauntxoren bat proposatzen zuen herriko alkatea izateko, eta beste guztien oniritzia jaso behar zuen, aho biziz. Era horretara izendatuak ez zeukan hiru urteko tartea bete beharrik, eta adibidez, 1786an eta 1787an jarraian Sebastian Zumaran alkate izendatzeko prozedura hau erabili zuten Eibarko auzokideek⁵¹.

Edonola ere, ez genuke pentsatu beharko auzokide guztiek udal-karguetarako izendatuak suertatzea gutziziatzen zutenik: errejimentuko partaide izatea onuragarria izan zitekeen arren, zama astuna ere bihur zitekeen abagune larrietan. Eibarko kasuan, arrazoi zehatzak ezagutzen ez ditugun arren, badirudi 1773. urte aldera zenbait auzokidek uko egiten ziotela udalkide izateari. Horretarako erabiltzen zuten trikimailua legeak berak eskaintzen zien. Foruen arabera, herriaren horniketaren arduradunak eta hauen fidatzaileak ezin ziren udal-karguetarako izendatuak izan, prebarikazio-aukerak areagotzen zirelako. Hori aprobeztatuz, udaleko kide izateari uko egiten zioten zenbait auzokide horniketara eta erremateak eskuratzen zituztenen

50. «Y en su consecuencia a una todo el congreso conformemente dijeron que por los muchos beneficios que havia recibido esta dicha villa de Don Sevastian de Zumaran y esttbaa recibiendo assi por el coratteral nuevo que por su quentta havia hecho en la Iglesia Parroquial de San Andres Aposttol de esta dicha villa, y los tres mil pesos que havia dado a esta dicha villa a fin de que con ellos haga la fundacion de un Agonizantte para el bien y socorro tan necesario de las Almas de los morimundos (sic) de esta republica, y tambien tenia ofrecido el Dorar dicho Coratteral luego que esttuviesen concluidos los santos de el, y fuera de eso manifesttava servir en los sucesivo a esta villa, y esta no tener con que obsquiarle a ttanttas dadibas para corresponderle de agradecido todos los del congreso se sacaron por su Alcalde Electto a voz y votto nomine discrepante como a hixo noble vecino Arraigado concejante de ella aunque en el día ausentte en la ciudad de Cádiz, y con animo de benir a esta su Patria; y del dicho Señor se esperaban mas utilidades en beneficio de esta noble villa tanto en la administracion de Justicia quanto en todo lo demas que ocurriese, y siendo tan benemeritta devian de nombrar y nombraron por ttal su Alcalde primitivo y Electto de esta dicha villa para el cittado proximo año de mil setteientos settenta y cinco» hautaketa. EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1775erako udalkideen hautaketa. Mende-laurdena geroago beste hau jasotzen da: «Y en su vista a propuesta el Señor Alcalde todos los concurrentes unanimes y conformes nombaron y elegieron por primer Alcalde al Exmo. Sr. Conde de Oñate, Grande de España de primera clase, vecino de la villa de Madrid y de esta de Eybar, en atencion a los grandes favores que ella ha merecido en todos tiempos se Su Excelencia» EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1802rako udalkideen hautaketa.

51. EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1787rako udalkideen hautaketa. Soria Sesék ere helburu hau aipatzen du: «Así, la designación de cargos no por sufragio, ni por cooptación, ni por sorteo, sino por aclamación de los vecinos asistentes al consejo convocado para elecciones. Suele emplearse (...) también con el objeto de eximir a los regidores del preceptivo intervalo para poder ser reelegidos al mismo oficio, designándolos de viva voz, sin pasar por el método ordinario» (Soria, 1984: 178). Letra etzana nirea da.

fidatzaile bihurtu ziren. Udalak diputazioari aholkua eskatu bazion ere, ez zuen erantzun garbirik jaso⁵².

Udalbatzar Orokorra: “Aiuntamiento General”

Orain arte azaldutakoa herren geldituko litzateke ñabardura garrantzitsu bat egingo ez bagenu. Gaur egun ez bezala, Lege Zaharrea errejimentuko partaideak ez izan arren, auzokideek ahalmen erabakigarria zuten udaleko gorabeheretan. Izan ere, udalkideen eskuduntzak Auzokideen Batzar Orokorrak⁵³ mugatzen zituen, eta errejimentuak ezin zuen 200 dukatetik⁵⁴ gorako gasturik erabaki auzokideen oniritzirik gabe. Beraz, udalak soldata handidun langile bat kontratatu behar zuenean (idazkaria, osagilea...), herri-lan potoloak egin behar zirenean, edota mailegu bat eskatzerakoan, alkateak auzokideen batzarrera deitzeko obligazioa zuen erabakia hartu baino lehen⁵⁵. Egia esan, diru-kontuak eztabaidatu ala ez, Eibarko Udala auzokideen batzarrean oinarritu zen XVIII. mende osoan zehar, eta XIX.aren lehen

52. 1773ko abenduaren 29an, Fco. Antonio Arizmendi Eibarko alkateak galdera bat luzatu zion diputazioari:

«... viendo esta noble villa que sus primeros o mejores vecinos arraigados por ebadirse de las cargas conzejiles de ella, entraban en todo genero de fianzas, assi de provisiones, y otras cosas, como son de las sisas, Donativos, derechos deel peso Real de la Alondiga, Juego de Bolos (...) En el día 31 de Diciembre de el año proximo pasado, al tiempo de las Elecciones de los capitulares, delibero y acuerdo, que entrasen en suerte siendo nombrados para ello, todos aquellos que se constituieron y que se constituiesen por fiadores (...) ecepto los rematantes principales de las provisiones de esta referida villa, y sus fiadores. En este supuesto corrio la eleccion espresada». Eta diputatu nagusiaren erantzuna: «... los Rematantes de Abasttos, Sissas, Donattivo, Peso Real, Juego de Bolos, y otras renttas de esta villa y sus Fiadores, ni el Tesorero de propios no pueden ser capitulares. Pero si remattan estos derechos por eximirse de las cargas de la Republica, como Vm. me havisa en su carta, y por esta razon faltan personas en quienes puedan recaer los empleos, pudiera la villa hacer un recurso al Supremo Consejo para que se digne acordar el remedio combeniente» EiUA, A,2,5, *Libro de eleccion de oficios (1660-1805)*, 1774rako udalkideen hautaketa.

53. Auzokideen batzar orokorrak oso jendetsuak izaten ziren. Adibide gisa, 1756ko bat: «Aiunttamiento General en 1º de Agosto de 1756. En las casas de Conzejo de esta noble y leal villa de Heibar, a primero de Agosto de mil settezientos y Zinquenta y Seis años, en testimonio de mi, Sebastian de Eguiguren, Essº de su Magestad numerario y de Aiunttamientos de ella, y testigos, que al final se diran precedida publicata de la Iglesia y a son de Campana tañida como lo tienen de uso y costumbre para semejantes casos se juntaron a Conzejo los Cavalleros nobles hijos dalgo de esta dicha villa especial, y señaladamente los Sres. Andres de Sarasqueta Alcalde y Juez ordinario de ella, Martin de Guisasola Garagarza (SPG), Francisco de Olave y Francisco de Iregui rejidores Francisco de Aguirre...» eta beste 40 lagunengatik izenak biltzen ditu «... y otros muchos vezinos, que por proligidad no se Asienttan todos Cavalleros nobles hijos Dalgo de esta dicha villa» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1756-8-1.

54. Dukat bat, 11 erreal ziren. Beraz, 200 dukat 2.200 erreal.

55. Elgoibarren, 1755eko Udal Araudiaren (“Ordenanzas Municipales”) arabera: «Que habiendo árboles bravos para materiales solamente la villa en su ayuntamiento general a de determinar su venta con las solemnidades y circunstancias que le parecieren convenir y no el regimiento so la nulidad y que se incurran en la pena dea 10000 maravedies el alcalde y los regidores y además en los daños y costas que en su averiguación se causasen» (Uriarte, 1998: 78).

herenean⁵⁶. Eta batzar horrek errejimentuko partaideen nahiak oztopatzeko gaitasuna zuen, gehiengoa lortzen zuenean. Ikus dezagun adibide bat.

1760ko apirilean Francisco Olabek sutegi handi bat eraiki zuen Barrenkalean, eta eraikinak su hartuz gero inguru guztiak kiskaliko ziren beldurrez, eliz kabildoak Olabereren sutegia suntsitzea eskatu zion korrejidoreari. Auzia 1750. urtetik omen zetorren, baina urte hartan ezin izan zen erabakirik hartu «... por la injusta oposizion de algunos vezinos interesados en la causa, que no dieron lugar a que se votase». Hamar urte geroago auzia pil-pilean jarri zen berriz, eliz kabildoko partaideek parte hartzea eskatu baitzioten udalari Olabereren aurkako auzian «... considerando que nuestra parte con justos fundamentos que la causa que siguen con dicho Olave sobre denunziacion de nueva labor de fragua maior es publica y que su prosecuzion toca y corresponde a la villa hasta conseguir la Extinczion absoluta de dicha fragua». Azken batean, auzian parte hartzeak gastu judizialak udalak bere gain hartzea eskatzen zuen. Auzokideek luze —eta beharbada sutsu— eztabaidatu bazuten ere, ez ziren ados jarri: alkateak eta gainerako kapitularrek udalak Olabereren aurkako auzian parte hartu behar zuela zioten, eta prozesuaren gastuak ordaindu; baina auzokideen gehiengoa ez zen iritzi berekoa. Azkenean botaziora jo eta auzian ez sartzearen alde zegoen taldeak irabazi zuen —«que no se de aiuda, ni voz corta por la referida villa en poco, ni mucho prottestando lo Contrario»⁵⁷, 28 boto 21en aurka. Beste 9 auzokidek konpromisozko formula baten alde bozkatu zuten, ordura arte izandako gastuak elizak, eta ordutik aurrerakoak udalak ordaintzea proposatuz; beste 5ek zuri bozkatu zuten; eta auzokideen batzarrean zeuden gainerako 31 auzokideek ez zuten botorik eman.

Ikusten dugunez, auzokideen batzarrak errejimentuaren erabakiak atzera botatzeko gaitasuna zuen, eta zentzu horretan, kontrapisu baten erara funtzionatzen zuen⁵⁸, urte bakoitzean udalkide taldea osatzen zutenen aurrean. Beraz, ondorioztatzen da Lege Zaharreko udalkideek, gaur egungoekin alderatuta, ez zeukatela horrenbeste autonomiarik. Edo alderantziz nahiago bada: gaur egun, herritar arruntek ez daukatela udalkideen erabakiak oztopatu edo atzera botatzeko mekanismorik. Garai hauetan, boto-eskubidea daukan biztanleria askoz handiagoa bada ere, behin

56. Eibarren udalaren batzar guztiak orokorrak ziren. Elgoibarren, ordea, 1766an udal partikularra —errejimentu hutsa— 3 aldiz bildu zen eta orokorra —auzokideen batzar orokorra— 4 aldiz; 1793an, 5 aldiz partikularra eta 10 orokorra. Elgoibarko udal-ordenantzek auzokideen batzar orokorrak zuen garrantzia adierazten digute, non udalkideentzat isunak iragartzen ziren funtsezko arrazoirik gabe udal orokorrera deitzen bazuten (Uriarte, 1998: 203).

57. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1760-4-19.

58. Elgoibarko udal-araudiak ere argi eta garbi uzten zuen auzokideen batzarraren lehentasuna errejimentuaren aurrean, isunak ezarri beren kabuz erabakitzen zuten udalkideentzat. Basoen ustia- ketaren inguruan, adibidez, hauxe zioen: «Que habiendo árboles bravos para materiales *solamente* la villa en su *ayuntamiento general* a de determinar su venta con las solemnidades y circunstancias que le parecieren convenir y *no el regimiento* so la nulidad y que incurran en la pena de a 10000 maravedies el alcalde y los regidores...» (Uriarte, 1998: 78). Letra etzana neuk jarria da.

botoa emanda ez du hurrengo lau urteetan arituko diren udalkideen erabakietan esku hartzeko gaitasunik, botere-delegazioa erabatekoa baita. Foru-erregimenean, orde, boterearen delegazioa partziala zen, eta auzokideek ahalmen erabakigarria berreskuratzen zuten Batzar Orokorretan. Batzar okorretan parte hartzea, gainera, eskubidea baino gehiago betebeharra zen, zeren gai garrantzitsuak eztabaidatu behar zirenean, batzarrera deitu eta agertzen ez zen auzokidea zigortzeko gaitasuna baitzuen alkateak⁵⁹.

1760ko botazioan parte hartu zuten auzokideak

NORTASUNA	Udal-karguak 1760-B	NORTASUNA	Udal-karguak 1760-B
ACHA ORBEA Andrés	A2 1758 Udalak	ARETA Francisco	A1 1763 Udalak
ARETA ZUBIAURRE Domingo	ER 1762 Udalak	ARGUIANO Lorenzo Ignacio	ER 1765 Udalak
ARIZMENDI Agustín	ER 1756 Udalak	AZPIRI AGUINAGA Miguel	ER 1759 Udalak
ERVITI Joseph	ER 1758 Udalak	ESPILLA Andrés	ER 1759 Udalak
GUISASOLA AMURUTEGUI Juan	Udalak	IRAEGUI Francisco	ER 1755 Udalak
IRIONDO Andrés	Udalak	LASCURAIN Juan Andrés	ER 1763 Udalak
LECETA Andrés	ER 1760 Udalak	LOIOLA Domingo	ER 1759 Udalak
MALLEA ALDIZABAL Joaquín	A2 1759 Udalak	MENDIZABAL Juan Bautista	A1 1756 Udalak
ORVEA Juan	Udalak	ORVEA SORAEN Miguel	Udalak
SARASQUETA Domingo	Udalak	SUINAGA Juan	Udalak
UNZETA ARIZMENDI Pedro	ER 1777 Udalak	ACHA GOROSTIETA Andrés	SPG 1771 Elizak
ACHA Martín	Elizak	AGUIRRE ARGUIANO Martín	TER 1828 Elizak
AGUIRRE Juan Joseph	SPG 1756 Elizak	ARANGUREN Geronimo	Elizak
ARGUIANO AZPIRI Joseph	ER 1772 Elizak	ARREGUI Domingo	Elizak
AZPIRI AZALDEGUI Lucas	ER 1771 Elizak	BURGOA Francisco Ignacio	A1 1765 Elizak
BUSTINDUI Francisco Antonio	SPG 1759 Elizak	BUSTINDUI RUIZ de BERNEDO	ER 1757 Elizak
GOROSTIETA Joachin	Elizak	GUISASOLA ESCAREGUI Diego	ER 1765 Elizak
GUISASOLA ESCAREGUI Joseph	Elizak	IBARZAVAL Fernando	Elizak
IBARZAVAL Pedro	SPG 1774 Elizak	ITURRAO Lucas "maior"	Elizak
LUZAR Joseph	Elizak	MANDIOLA Agustín	Elizak
OTAJE Domingo	Elizak	PAGAEGUI Pedro	ER 1757 Elizak
PAGOAGA Domingo	SPG 1773 Elizak	UBERUAGA Andrés	SPG 1785 Elizak
UNAMUNO Nicolás	Elizak	UNCETA BARRENECHEA Martín	ER 1773 Elizak
URIZAR Antonio	Elizak	VERGARA Aberto	SPG 1770 Elizak
VERGARA Andrés	Elizak	ABANZABALEGUI Pedro	A1 1757 Biek
ARIZMENDI Francisco Antonio	A1 1773 Biek	GUISASOLA AREJITA Martín	ER 1767 Biek
GUISASOLA GARAGARZA Martín	SPG 1755 Biek	GUISASOLA Joseph Bruno	Biek
GUISASOLA Joseph Joaquín	SPG 1760 Biek	INARRA IREGUI Joseph	Biek
LECETA Matias	Biek	VERGARA GALLAIZTEGUI Andrés	SPG 1757 Biek

Taula honetan, 1760ko martxoaren 18ko bozketan parte hartu zuten auzokideen nortasuna, eta bakoitzak eman zuen botoa ageri dira. "Udal-karguak" zutabea, 1755etik aurrera udalkidea izan zen lehen aldia aipatzen da, bete zuen karguarekin. Erabilitako laburdurak honako hauek dira: A1 = Alkate titularra; A2 = Ordezko alkatea; ER = Errejidorea; SPG = Sindikoa ("Sindico Procurador General"). Taulan agertzen den Martín Agirre Argianoren kasuan, beharbada "klon" ⁶⁰ baten aurrean gaude.

59. «... que los vecinos que havian faltado a este Aiuntameinto ezepto los indispuestos y Ausentes todos los demas estando y que estaban en el Cazgo de ella por no haver Concurrido a el de este día pagasen por cada uno ocho reales de vellon» EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1768-5-22. Hamabi urte geroago, isuna lau errealekoa zen.

60. Hitz hau erabiliko dut izen eta abizen berdinei dagozkien bi erreferentzia aurkitu arren, errealitatean bi pertsona ezberdin direlako susmoa sortzen zaidanean. Kasu honetan, nahiko zaila iruditzen zait 1760an gutxienez 25 urte eduki behar zituen Martín Aguirre Arguiano, 1828an oraindik bizirik egotea, 93 urterekin!

Aipagarria iruditzen zait, bozkatu zuten 63 auzokideetatik 37 udalkideak izandakoak edo izatekoak zirela. Gainerako 26ek udal-kargurik bete ez izanaren inguruan, zorte txarra baino gehiago (gogora dezagun udal-karguen hautaketan zorteak ere bazuela zerikusirik), ez zutela ondasun nahikorik edukiko bururatzen zaigu. Izan ere, Eibarren zehaztasun hau aurkitu ez dudan arren, beste udal batzuetan auzokideak bi kategoriatan banatuta agertzen dira: “*vecinos de voz activa*”, hau da, bozkatzeko eskubidea zutenak; eta “*vecinos de voz pasiva*”, bozkatzeaz gain, bozkatuak izateko eskubidea zeukatenak. Azken hauek aurkeztu behar zuten “*millar*” edo ondasun kopurua zertxobait handiagoa zen⁶¹. Talde horri deitzeko, *auzokide hautagaiak*⁶² hitza erabiliko dut, auzokideak izan arren udal-kargurik betetzeko adina ondasun ez zeukatenengandik bereizteko.

Olaberen sutegiarekin zer egin erabakitzeke bozketan zer gertatu zen pixka bat gehiago aztertzeke, begira diezaiegun taula honen emaitzei.

	Auzokide hautagaiak	Auzokide ez-hautagaiak	Auzokideak guztira
Elizak	13	15	28
Udalak	14	7	21
Biek	6	3	9
Zuriz	2	3	5
Ez	3	28	31
Guztira	38	56	94

Erabakitzeke ahalmena auzokide hautagaiei mugatuta egon izan balitz, udalak Olaberen aurkako auzian parte hartuko zuen, eta gastuak ordainduko. Baina hautagaiak ez ziren auzokideek hankaz gora jarri zuten bozketa; edo hobeto esanda, horietariko taldetxo batek, 56 lagunetik 15ek baino ez baitzioten aurre egin udalkideen nahiari. Edonola ere, auzokide hautagaien taldea zatituta agertzen zenean (13/14) ez-hautagaien botoa erabakigarri bihurtzen zen. Beraz, talde bakoitzak ahalegin handiak egingo zituen hautagaiak ez izan arren, boto-eskubidea zeukaten

61. Irunen, adibidez, bozkatzeko hiru goldeko ondasunen jabe izatea nahikoa zen (6.510 metro karratu); bozkatzeaz gain bozkatua izateko, lau golde ziren beharrezkoak (8.680 metro karratu) (Iparragirre, 2001: 27).

62. Iban Zalduak zuzenduriko taldeak Emiliano Fernandez de Pinedoren *Crecimiento económico y cambio social en el País Vasco (1100-1850)* liburuaren itzulpenean *auzokide hautagai* hitza erabili du, “*vecino concejante*” hitza euskaratzeko. Nire ustez egokiagoa da “*vecino concejante*”rentzat “*auzokide*” hitza erabiltzea, “*auzokide hautagai*” terminoa “*vecino concejante de voz pasiva*”ren ordeztu erabiltzeko gordez, eta besterik ezean, “*vecinos concejantes de voz activa*” itzultzeko, “*auzokide hautesle*” terminoa asmatu dut. Bereizketa hau egitea komenigarria iruditu zait, are gehiago hutsala dirudien terminologia honen atzean, biztanleen kategorizazio juridiko-politiko bat dagoela dakigunean, herriko biztanleak eskubide maila ezberdineko multzoetan sailkatzen dituen.

auzokideen borondateak erakartzeko. Izan ere, haiek ziren gehiengoa batzar orokorrean. Beste alde batetik, udalak auzian parte hartzearen aldeko iritzia indartsuago agertu zen jatorriz eibartarrak ziren auzokideen artean; kanpotik ailegatutako familietako auzokideen artean, ordea, elizari laguntzarik ez emateko jarrera nagusitu zen. Eta bozketaren emaitza azken horien aldekoa izan zen.

Aipagarria iruditzen zait 31 auzokidek bozkatu ez izana. Udaleko gaien inguruan euren iritzia ematera ausartuko ez balira bezala, abstenitu egin ziren. Ziur asko botazioa ahoz burutu bazen ere, bazeukaten —Gisasola sindikoak egin zuen bezalaxe— auziaren gastuak bi erakundeen artean ordaintzearen alde bozkatzeko aukerarik; edo zuriz bozkatzekoa, bost lagunek egin zuten bezala. Presioak direla medio —beharbada—, nahiago izan zuten iritzia beraien golgorako gorde. Alkatea bera ere ez dugu aurkitzen bozkatu zutenen artean, udal-aktak «consta que veinte y un vezinos en que son incluso el Sr. Alcalde y rejidores son de sentir el que se siga el dicho dictamen costeandose el referido pleitto de los efecto de esta dicha villa en todo y por ttodo» badio ere⁶³.

Batzar Orokorrean egon arren, bozkatu ez zuten auzokideen nortasunak eta perfil politikoa zehaztea interesgarria da. 31 laguneko taldea osatzen dute, eta horietatik 3 baino ez dira auzokide hautagaiak. Beheko zerrendan beste lau auzokide (HD eta HS laburdurekin) udaleko partaide gisa agertzen badira ere, horiek ez ziren auzokide hautagaiak. Horren arrazoiak hurrengo kapituluan azalduko ditugu. Beharbada, gehiegi luzatu naiz botazio xume baten inguruan, baina ez dugu botazio ugariaren berri aurkituko Eibarko Udaleko akta-liburuetan, are gutxiago, honetan bezala, auzokide bakoitzak egindako aukera zehazten digunik.

NORTASUNA	Udal-karguak1760-B		NORTASUNA	Udal-karguak1760-B	
ACHA ORBEA Juan	ER 1770	Ez	AGUIRRE Francisco		Ez
ALBERDI Andrés		Ez	ALBERDI EGURZA Bauptista		Ez
ARETA Domingo "menor"	ER 1773	Ez	ARETTA Atanasio	HS 1778	Ez
ARGUIANO GARAGARZA Joseph	HS 1779	Ez	ASCARSUA Domingo		Ez
BARRUTIA Martín		Ez	BUSTINDUI RUIZ Domingo		Ez
ECHABARRIA Joseph	HD 1789	Ez	ESCAREGUI Diego		Ez
ESCAREGUI Joseph		Ez	GALLAIZTEGUI Francisco		Ez
GUISASOLA AGUINAGA Martín		Ez	GUISASOLA Thomás		Ez
IBARRA Miguel	HS 1773	Ez	IBARZAVAL Celedón		Ez
IBARZAVAL Juan		Ez	IRIONDO Matías		Ez
LUZAR Agustín		Ez	OLAÑETA Agustín		Ez
OLAÑETTA Joseph		Ez	OLAÑETTA Luis		Ez
OLAÑETTA Pedro		Ez	OLAVE Francisco	ER 1755	Ez
ORVEA SORAEN Andrés		Ez	OTAUE Andrés		Ez
SAN MARTIN Gregorio		Ez	TREMIÑO Diego		Ez
VERGARA Francisco		Ez			

63. EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1760-4-19.

Atal honi bukaera emateko, 1777. urtean gertaturiko beste botazio bat jasoko dugu. Kasu honetan, bideak konpontzeko Abandoko mojen komentuek mailegatutako 1.000 dukaten eta Zaragozako gotzainak mailegatutako 180.000 errealen gordetzailea (“*depositario*”) lehenbailehen izendatzeko agindu zuen korrejidoreak, aurreko bileran izendapena bertan behera gelditu zen-eta. 1760an bezala, luze eztabaidatu arren, ez zen auzokideen arteko adostasunik lortu eta botaziora jo zuten. Oraingoan, sekretua izan zen eta emaitzak baino ez dakizkigu: Pedro Abanzabalegik 13 boto lortu zituen eta Juan Jose Agirrek 14, «incluso el suyo, que se aplico asi mismo, y el de Jose de Egocheaga, Escribano del numero de estta villa, que tambien se hallo presentte y confirio a dicho Juan Jose»⁶⁴. Ikusten dugunez, oraingoan ere oso orekatuta agertzen da udalkideen iritzia, boto bakar batengatik irabazi baitzuten Agirrereren aldekoek; eta tamalgarria da botazio hau sekretupean burutu izana, zeren Agirre eta Egotxeagaren inguruan sortutako taldeak 1760ko botazioan bereizi ziren bi taldeekin alderatzeko aukera galtzen baitugu.

Auzia ez zen hemen amaitu. Auzokideetariko batek —Domingo Olabek— korrejidorearen aurrean hel egin zuen, eta botazioa indargabetzea lortu zuen. Zer zela-eta? Batetik, Egotxeagak, eskribaua izanda, ez zeukalako botazioan parte hartzeko eskubiderik; bestetik Agirrek bere buruaren alde bozkatu zuen, eta hori ezinezkoa zen. Indargabetutako bi boto horien ondorioz, gordetzailearen kargua Abanzabalegiren eskutara bildu behar zen, baina udalak berriro auzokideen batzarrrera deitu eta botazioa berriz egitea agindu zuen, oraingoan ere sekretuan. Bigarren botazio honetan ere Agirre atera zen garaile, 50 botorekin; Abanzabalegik gainerakoak eskuratu zituen, eta kopuru zehatzik ez badakigu ere, Agirrek lortutako emaitzetatik urruti xamar gelditu zela esango nuke.

GIPUZKOAKO BATZAR OROKORRAK

Eibarko herriak Gipuzkoako Batzar Orokorretan —“*Juntas Generales*”— parte hartzen zuen. Batzar horiek urtean behin biltzen ziren gutxienez, uztailaren hasieran hamar egunetan zehar. Udalerrri bakoitzak ordezkari bat edo bi bidaltzen zituen, premiaren edo ahalmen ekonomikoaren arabera, ordezkariak ordaindu egiten baitzitzaienten⁶⁵. Batzarretan Gipuzkoako herrialdeari zegozkion kontuak erabiltzen ziren, arlo administratibo, ekonomiko eta politikoan: bideen eraikuntza eta konponketak; herrien arteko istiluak; monarkiak eskaturiko soldaduak edota zergak... Baina zalantzarik gabe Gipuzkoako Batzar Orokorren eskuduntza nagusia (gainerako foru-herrialdeena bezalaxe), Foru Baimena zen (“*Pase Foral*”). «Se obedece pero no se cumple» formularen bidez, Batzar Orokorrek foru-erregimenaren aurka zihoazen Erret Agindu, Dekretu edota Zedulei uko egin, edo etengabe atzeratzeko

64. EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1777-2-21.

65. 1777an 20 peso ordaintzen zizkion Eibarko Udalak Batza Orokorretara bidaltzen zuen ordezkari bakarrari, EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1777-7-20.

eskubidea zeukaten. Izan ere, erregeak Gipuzkoako foruak⁶⁶ errespetatuko zituela sinatzeko obligazioa zuen, gipuzkoarrek erregetzat onartzea nahi baldin bazuen. Sistema honen arabera, erregeak ezin zion inolako aldaketarik inposatu herrialdeari (Foru Baimenak edo “*Pase Foral*”ak bermatzen zuen eskubide hori), eta alderantziz, herrialdeak ezin zuen sistema hau aldatu erregearen oniritzirik gabe. Beraz, komeni da ohartaraztea ezen Gaztelan erregearen aginte-ahalmenak erabatekoa bazirudien ere⁶⁷ (errege absolutua), foru-lurraldeetan bere aginpidea mugatuta zegoela. Sasoi hartan, gainera, botere-zentrotik urruti zeuden guneak kontrolatzeko aukerak ez ziren gaur egungoak. Euskal lurraldeek gozatzen zuten status juridiko hau ezagututa, autore batzuek baieztatu zuten⁶⁸ absolutismoaren garaian euskal lurraldeetan sasidemokrazia bat bizi zela.

Korrejidorea erregearen ordezkaria zen Gipuzkoako lurraldean, eta ondorioz, Batzar Orokorren burua. Horrez gain, eskuduntza judizial garrantzitsuak zituen⁶⁹. Ustekabeko arazoak sortzen zirenean Batzar Bereziak (“*Juntas Particulares*”) egiten baziren ere, sistema hau ez zen batere egokia, hain sarri bildu beharrak herrien gastuak areagotzen zituelako. Hasiera batean, Batzar Orokorretan harturiko

66. Foruei buruz hitz egiten dugunean, komeni da bereiztea hiribilduen sorkuntzan Nafarroako, Gaztelako edo Aragoiko erregeek emandako forua edo “*carta puebla*”, eta herrialde osoari zegozkion foruak. Ezberdintasunaren gakoa argi eta garbi azaltzen du Solozabalek: «De otro lado es preciso distinguir entre los Fueros Vascongados, propiamente dichos, que se refieren al derecho territorial privativo de toda o la mayor parte de las provincias, de los Fueros Municipales, que otorgados por el Señor o Monarca, tuvieron vigor exclusivamente en las villas de la Region vasca (...) Los fueros generales vascongados, que son los que a nosotros nos interesan, tuvieron reconocimiento, que no origen real» (Solozabal, 1979: 214-215).

67. «Estatu absolutistak, izenak besterik adierazi arren, ez du esan nahi erregea eta bere kontseiluak guztia erabakitzen zutenik. Nahia eta borondatea hori izan arren, oztopoak nabarmenak ziren. Lege Zaharraren garaian, botereen konkurrentzia jurisdikzionala zen bereizkuntza nabarmena eta komunitate bakoitzak tokian tokikoa edo hirikoa edo lanbidezkoa bere status jurisdikzional propioa irabazteko ahaleginetan ziharduen; azken batean, komunitatearen autonomia zaintzeko bidea baitzen (...) Erresuma absolutistaren barruan, ez zen erraza lurralde-boterea kontserbatzea eta, beraz, tirabiran nortasuna irabazten ari ziren. Erresumaren baitan, lurralde bakoitzak beren kabuz aukeraturiko ordezkari bidez gobernatzen ziren; beste batzuk, aldiz, zuzen-zuzen monarkiaren funtzionari edo intendententz bidez, hau da, monarkiaren administrazioaz zuzen-zuzenean» (Agirreazkuenaga, 1993a: 51-53).

68. «Figura por ejemplo en 1787 dentro del panorama constitucional comparado que ofreciera, como Defence of the Constitution of Government of the United States of America, quien fuera luego presidente de los mismos, John Adams. Vizcaya comparecía como república democrática junto a San Marino, algún cantón suizo y las Provincias Unidas de los Países Bajos por delante de la misma Inglaterra, al ser ésta república monárquica, pasándose por repúblicas aristocráticas de cantones helvéticos» (Clavero, 2000: 31).

69. «Aunque el corregidor en Gipuzkoa fue siempre un órgano eminentemente judicial, cuya jurisdicción complementaba la ejercida por los alcaldes municipales en la vía civil y criminal, no por ello dejó de tener encomendadas importantes funciones político-administrativas. De hecho, el corregidor viene a ser el elemento tutelar de la actuación individual del municipio, en lo judicial, y el instrumento de control, cooperación y auxilio del gobierno general de la Provincia, en el campo administrativo» (Ruiz Hospital, 1997: 88-89).

erabakiak gauzatzeko ez zenez erakunde edo pertsona berezirik izendatzen, korrejidorea arduratzen zen horretaz, herrialdeak beretzat zituen eskuduntzak bereganatuz. Beste gauza batzuen artean, hori saihesteko sortu zen Diputatu Nagusiaren figura XVI. mende aldera⁷⁰, eta diputazioa bera, urte batzuk geroago.

Bizkaiko Batzar Orokorrak beti herri berean biltzen baziren ere (lehenengo Larrabetzun, gero Gernikan), Gipuzkoan hemezortzi herrik banatzen zuten ohore hori⁷¹, txandaka. Diputazioaren egoitza ere urtero-urtero aldatzen zen, lau herriren artean: Donostia, Tolosa, Azkoitia eta Azpeitia. Diputazioaren egoitza izatea, ohore hutsa baino gehiago, sekulako pribilegioa zen, diputazioaren partaideak udalerrri horretako biztanleen artetik aukeratu behar izaten zirelako. Hau da, mendeetan zehar, Gipuzkoako Diputazioko partaide guztiak donostiarrak, tolosarrak, azkoitiarrak eta azpeitiarrak izan ziren, harik eta 1799ko Batzar Orokorretan Diputatu Nagusia txandako herriko biztanlea izatearen baldintza kendu zen arte. Botazio hura ozta-ozta irabazi zuten aldaketaren aldekoek, 1.143 “su”rekin (“*fogueras*” edo “*fuegos*”) 1.110en aurka, berauen artean Eibarkoa⁷². Edonola ere, Batzar Orokorrek harturiko erabaki hura ez zen gauzatu 1817ra arte (Uriarte, 1998: 47).

Suak —“*fogueras*”— Lege Zaharreko unitate demografikoak ziren. Gipuzkoan, udalerrri bakoitzak bere biztanleriaren arabera boto edo su kopurua zeukan Batzar Orokorretan. Botoez gain, herri bakoitzak ordaindu beharreko zerga edota soldadu kopurua suen arabera neurtzen zen. Beraz, eskubideak eta betebeharrak nahiko orekatuta zeudela esan dezakegu. Bizkaiko Batzar Orokorretan, ordea, udalerririk txikiak eta Bilbok, pisu berdina zeukaten: udalerrri bat, boto bat. Zer esanik ez, gaur egungo ikuspegitik justuagoa dirudi Gipuzkoako Batzar Orokorretan erabiltzen zen sistemak. Baina kontuan hartzen badugu, bai Gipuzkoan bai Bizkaian, Batzar Orokorretara zihoan ordezkariak herri guztiaren izenean, edo hobeto esanda, herriko su guztien izenean bozkatzeko zuela, bizkaitarren prebentzio-neurriak ez zaizkigu hain atzerakoiak irudituko. Zeren, herri bateko biztanleen iritzia gai baten inguruan erdibituta egon arren, Batzar Orokorretara zihoan ordezkariak ezin zituen bere udalerriri zegozkion suak erdibitu bozketa baten aurrean, udalerrri bezala bozkatu behar zuen, batera edo bestera. Horren ondorioz, Gipuzkoan, populazio gehien zeukaten 6-8 udalerrietako ordezkariak ahalmena zuten beren iritzia gainerakoei inposatzeko, aurretik elkarrekin ados jartzea lortzen bazuten, noski. Zentzu horretan Bizkaian, populazio gutxiko udalerriak askoz babes-tuago zeuden.

70. Ruiz Hospital, 1997: 180-184.

71. Hasierako hamazortzi herriei, Oñati bildu zitzairen 1845ean, Irun eta Oiartzun 1860an, Eibar 1865ean eta Zumarraga 1867an. Baina azken bietan inoiz ez ziren bildu Batzar Orokorrak, txanda heldu baino lehen espainiar parlamentuak foruak ezabatu zituelako (1876).

72. Ruiz Hospital, 1997: 258.

ANTOLAKUNTZA MILITARRA

Agerraldien zergatia

Foru-lurraldeetako biztanleak soldadutza-zerbitzutik salbuetsita zeudela sarritan entzun dugun arren, badago ñabardurarik baieztapen horretan. Alde batetik, salbuespen horrek ez zituelako Gipuzkoa eta Bizkaiko kostaldeko herriak barne hartzen; izan ere, herri horiek behartuta zeuden itsas armada zerbitzurako deialdiak gertatzen zirenean marinela ematera. Bestetik, espainiar monarkiak behin baino gehiagotan exijitu zituen soldaduak lehorreko zerbitzurako, eta eskakizun horiek saihesteko era bakarra dirua eskaintzea izaten zen soldaduen truke. Eta dirua lortzeko, diputazioek zerga bereziekin zamaten zuten biztanleria. Beraz, lehorreko zerbitzua ez betetzearren, foru-herrialdeetako biztanleek gainerako lurraldeetan ezagutzen ez zen *zerga militar berezia* ordaintzen zutela esan dezakegu. Agerraldiek —alardeek— beste eginkizun garrantzitsu bat betetzen zuten: biztanleen artean zeuden kategoriak islatzea, hain zuzen. Elgoibarko udal-ordenantzek diotenez, hauen helburua zen «... no solo (...) la defensa de la patria, si no tambien para que cada uno sepa quienes son los vecinos nobles hijosdalgo admitidos a los honores que les pertenecen en paz y en guerra» (Uriarte, 1998: 227). Beraz, sinbolismoz beteriko ekitaldiak zirela ondorioztatu dezakegu, gizartearen estratifikazioan oinarritutako eszenografia militarrek, azken finean.

Horrez gain, soldadutarik ez bazegoen ere, gerra-mehatxuaren ondorioz foru-lurraldeak inbaditzeko arriskua sortzen zenean, mobilizazio orokorrera deitzen zuten diputazioek, eta herrialdean sartzen baziren, familia bakoitzak gizon bat eman beharra zuen herrialdea defendatzeko. Testuinguru horretan kokatu behar ditugu agerraldiak, zeren etsaiak erasotzen zuen egunean «... jendeak ez bazekien zer egin, nora jo, norekin bildu eta abar, alferrikakoa bihurtzen zen ahalegin guztia. Horretarako prestatzen ziren alardeak: egun seinalatuetan entseiuak eginez, borrokatzeko momentua ailegatzen zenerako biztanleen borondateak bildu, obedientziak lotu, gorputzak prestatu eta izpirituak indartzeko. Berehala erantzun behar zen, noski. Ziztu bizian jantzi, etxean armarik bazeneukan hartu, eta besteekin bildu behar zinen leku jakin batean, defentsa prestatzen hasteko. Jokoan zegoena norbere etxea eta familia zela dakigunean, irudikatzen da kanpaia jotzeko modu berezi hark sortarazi behar zuen zirrara, beldurra eta amorrua» (Iparragirre, 2001: 162). Prestakuntza horiek muga ondoan zeuden herrietan indar berezia izaten zuten, eta hain zuzen ere, hori izan daiteke alardeen ohitura Irunen eta Hondarribian soilik mantendu izanaren arrazoia. Baina kostaldeko herrietan ere arrisku berdina bizi izaten zen, batez ere Ingalaterraren aurkako gerrateetan edozein lekutan lehorreratu ahal zirelako haien txalupak. Horrelako abaguneetan, barnealdeko herriek ere kostaldea defendatzen lagundu behar zuten⁷³.

73. Eibarko herriari dagokionez, orain dela gutxi aurkitutako dokumentu batek Ingalaterrarekin hasitako gerraren ondorioz hartu ziren neurriak azaltzen dizkigu: «Y consiguientemente acordaron el

Foru-erregimenaren arabera, gisa honetako prestaketa militarrek eragiten zituzten gastuak, «herrialdearen defentsarako atzerritik zetozen erasotik libratzeko zenez gero, probintziak ordaindu beharko zituen gastu guztiak» (Agirreazkuenaga, 1993a: 69). Hauxe zen, nolabait esateagatik, soldadutzatik salbuetsita egotearen truke euskal lurraldeek ordaintzen zuten prezioa. Beste lurralde batzuetan, ordea, erregeak berak ordaintzen zituen gerren ondorioz sortutako zorrak. Beraz, abagune baketsuetan sistema hau onuragarria bazen ere, zama latza bihurtzen zen gerra-garaietan, zeren, foru-herrialdeak lehen lerroan kokatzen zirenez, Espainiako eta Frantziako erregeen artean nahi baino maizago gertatzen ziren guduen lehen pairatzaileak Gipuzkoa eta Nafarroa izaten baitziren. Alde bateko zein besteko gudarosteen horniketak eta zerbitzuak, eta herritarren artean eta beraien ondasunetan eragindako kalteek (hilketak, atxiloketak, bortxaketak, erbesteratzeak, erreketak, zerga bereziak, ondasunen bahiketak...) foru-erakundeen zorpetze zikliko bat eragiten zuten, eta herrialde mailako ogasuna oraindik garatu gabe zegoenez, udalerriak izaten ziren defizitari aurre egitearen arduradunak.

Beraz, salbuetsita baino egokiagoa iruditzen zait esatea foru-herrialdeek modu berezia zutela zerbitzu militarra betetzeko⁷⁴. Une zehatz batzuetan, nahitaezko soldadutza ezartzeko ahaleginak egin zirenean, herritarrak matxinatu arren (Zamakoladaren arrazoiatariko bat hau izan zen, adibidez), foru-herrialdeek, luzaroan, funtsezko lana bete zuten espainiar monarkiaren defentsa militarrean. Hala ere, zentralistek uste zuten foru-lurraldeek iruzurra egiten ziotela estatuari, zeren espainiar izatearen abantaila guztiak gozatzeko prest baitzeuden, baina betebeharren aurrean entzungor (zergak eta soldadutza). Ikuspegi horren defendatzaileek foru-herrialdeek —batez ere Gipuzkoak eta Nafarroak— espainiar monarkiaren egitura militarrean betetzen zuten paper estrategikoa ahazten zuten.

que en el día de mañana Domingo por la tarde y en los demas que dispusieren y ordenasen los referidos señores oficiales se hagan practtiquen por dicha Compañia los ejercicios conducentes para que este mejor instruida, dandosele el refresco acostumbrado, y que este prevenida para marchar y presenttarse en la primera orden de la Diputtacion de esta M.N. y M.L. Provincia de Guipuzcoa, a donde llamase la necesidad». EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1779-10-2. Eta azaroaren 17an: «He quedado de acuerdo con el Exmo. señor Comandante General en que devera marchar la Compania de Naturales de V.M. (con otras) a la villa de Motrico o Deva, al primer Disparo de Cañon de aquella villa, en caso de percibirse, y en defecto al puntto mismo que recibiere Vmd. orden mia, o havisso de alguno de los citados dos Pueblos» EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1779-11-17. Ez ziren entzumen makalekoak, Mutrikun jotako kanoikada Eibarren entzuteko.

74. «En líneas generales, cabría decir que los originarios de los territorios forales vascos mantuvieron un sistema peculiar y privilegiado para la prestación del servicio militar, pero la existencia de estos condicionantes no les eximió del cumplimiento de aquel deber (...) quedaron obligados a la prestación del servicio militar, regulándose éste mediante la normativa establecida por la legislación foral» (Mugartegui Eguia, 1990: 40).

Eibarko tertzioen konpainiak XVIII. mendearen bigarren erdialdean

Gregorio Mugicak XVIII. mendean zehar Eibarren agindutako mobilizazio militarren berri ematen digu: 1740an, 1742an, 1747an eta 1762an burutu ziren, azken hau Ingalaterraren aurkako gerra zela-eta (Mugica, 1990: 29, 30). Eratutako konpainien buruan udalkideak jartzen ziren normalean. 1779an, Ingalaterrarekin gerra hasi berri zela, Baionako portuan zeuden zazpi itsasontzi espainiarretako marinelek alde egin zuten, eta Gipuzkoako Diputazioak gutun bat idatzi zion estatuko ministroari, euskal marinelen jokabidea nolakoa izan zen jakiteko. Haren erantzunean adierazten denez, «no haver sido Indibiduos de Vizcaia los que equipaban aquellos Buques». Errege Armadaren utzikeria ikusita, Donostiako Kontsulatuak ontzi kortsarioak prestatzea erabaki zuen, bere merkataritza babesteko⁷⁵. Gerra-egoerak eraginda, 1762ko deialdian Aratusteetan astean zehar lau egunetan haragia jateko baimena eman zuen erregeak, eta 1779koan ere, haragia jateko debekua kendu zela dirudi⁷⁶.

3. eranskinean 1740-1779 bitartean burutu ziren mobilizazioetan parte hartu zutenen nortasunak azaltzen dira. 1779koan izan ezik, gainerakoetan konpainietako ofizialenak baino ez ditugu ezagutzen. Begirada zorrozten badugu, laster konturatuko gara zenbait familia eginkizun militarretan espezializatuta zeudela, belaunaldiz belaunaldi kanpaina guztietan parte hartu zuten-eta. Arizmenditarrek 1740, 1747 eta 1779ko kanpainetan parte hartu zuten; aretarrek eta sarasketarrek, 1762koan eta 1779koan... Baina, zalantzarik gabe, arlo honetan gehien bereizi zen familia laskuraindarrena izan zen: Pedro Laskurain sarjentua izan zen 1740ko kanpainan, eta tenientea 1747koan; Juan Andres 1762an eratu zen konpainiako kapitaina izan zen; eta bere semea —Juan Andres Laskurain “*menor*”—, sarjentua 1779an. Laskuraindarrei buruz hitz egiteko edukiko dugu parada hoberik. 1779ko soldadu-deialdiari dagokionez, aipatu behar da behartuta joan behar zutenen (23 lagun) eta zozketaz irtendakoen artean (20 lagun) egin zen bereizketa, horren arrazoi zehatzik ezagutzen ez dugun arren.

3. eranskineko taulan, lekurik ezean, ez dut islatu soldadu horiek udal-kargurik bete zuten ala ez, baina interesgarria iruditu zait datu-baseak ematen dituen aukerak erabiltzea kalkulu batzuk egiteko. 76 lagun horietatik 22 auzokide hautagaiak ziren, eta 4 auzokide hautesleak. Gainerako 50ak biztanle hutsak ziren, esku-bide politikorik gabeko biztanleak, alegia. Giza talde horren egoera oso kezagarria

75. «Trata seriamente del aprompto de una Nave Corsaria que conteniendo el orgullo enemigo proteja el Comercio deviendo prometerse el mas bentajoso desempeño de la actividad de tan Ilustre Cuerpo» EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1779-9-26.

76. Pablo Salazar, haragiaren probisioaren errematatzaileak (“*obligado de la provision de carnes*”) zioenez: «Que mediante el mucho consumo que ha havido en la Cuaresma», haragiaren prezioa igo egin zen eta udalak libra 8 laurdenetan barik, 9 laurdenetan saltzeko baimena eman zion, EiUA, A,1,1,6, *Akta Liburuak (1777-1784)*, 1779-9-26. 1762ko erreferentzia, EiUA, A,1,1,5, *Akta Liburuak (1756-1768)*, 1762-1-17.

zen, zeren herri mailako erabakitze-prozesutik baztertuta bazeuden ere, zerga edota soldadu-kontuetan besteek beste —edo gehiago— betebeharrak baitzituztelako⁷⁷. Egoera hori ez zen Eibarko bitxitasuna, foru-herrialde guztietan bizi zen errealitatea baizik, Europa guztian ez esateagatik. Ikusiko dugun moduan obligazioen eta eskubideen arteko desoreka horrek istilu larriak eragin zituen XVIII. mendearen azken herenean.

LABURPEN GISA

Lehen kapitulu honetan asko luzatu naiz beharbada. Edozein modutara, gertakizunen ildoari kolpe egin baino lehen, beharrezkoa ikusi dut gertakizunok kokatzen eta baldintzatzen duten testuinguruaren zirriborro bat egitea. Asfaltokume garenok nahiko kostatzen zaigu basaz eta hondakinez betetako kaleak irudikatzea; gizakia-
ren berdintasunean hezita, zaila egiten zaigu odol-garbitasunean oinarritutako gizarte-sailkapena ulertzea; eta konstituzionalismo zentralistaren magalean hazita, ez dugu usaindu ere egiten Gaztelako erregeen eta foru-herrialdeen arteko itunaren zentzua...

Pinuaren berde ilunera ohituegi dauzkagu begiak, sasoi batean pago, haritz eta gaztainondoen orlegi distiratsuak nagusitzen zirela sinesteko; bizkorregi nekatzen zaizkigu zangoak, sasoi batean herritar xeheek oinez bidaiatzen zutela pentsatzeko... Neroni ere, zaila egiten zait irakurri ditudan dokumenturik gehienak lumaz idatzi zirela sinestea; eta orrialdeak pasatu ahala tinta nola argitzen den ikusita ere, urteak behar izan ditut konturatzeko tinta urarekin nahastea eskribauek dirua aurrezteko erabiltzen zuten trikimailurik arruntena zela. Gaurkotasunean harrapatuta bizi gara eta, normala den moduan, gaurkotasunaren betaurrekoek aurreiritziz estaltzen dute gure begirada, baita historialariena ere⁷⁸.

Gertakizunen zurrunbiloan murgilduta, historiaren protagonistek ez daukate, ezin dute eduki, fidagarritasunez beraien denboraren ezaugarri nagusiak atzemateko aukerarik. Zentzu horretan, Berlingo Harresia erori aurreko hamarkadan, zenbait estaturen zerbitzu sekretuek agian bai, baina historialari gutxi ausartuko zatekeen Sobietar Batasunaren desagertzea iragartzera. Gaur egun, ordea, besterik gabe

77. Eskubide politikorik gabeko biztanle multzo honen kopurua zehaztea oso zaila bada ere, esku artean ditudan datuekin hipotesi bat egitera ausartu naiz. Auzokideek osatuta aurkitu dudan zerrendarik luzeena 1766koa da, eta 159 lagun agertzen dira; eta 1785eko txostenak dioenez 335 familia zeuden Eibarren. Datu hauen arabera familia erdiek baino gehiagok (% 52,5) ez zeukaten udal-gobernuan parte hartzeko aukerarik. Horrez gain, familia baten barruan pertsona bakar batek (familia-buruak) zeukan bozkatzeko eskubidea.

78. Foucaultek zorroztasunez salatu zituen gaurkotasunaren ikuspegiak ezkututzen dituen arris-
kuak: «Historiadores con la ingenua creencia de que justamente su tiempo posee la razón en todas las opiniones corrientes, y que escribir conforme a dicho tiempo significa lo mismo que ser justo», Foucault, 1978, 88.

onartzen dugun fenomenoa da hau: ekoizpen-sistemaren zaharkitzea zela, burokraziaren ustelkeria zela, kontsumo-gizartearekiko grina... Horiek guztiak eta gehiago, sistema komunistaren iragarritako suntsipenaren arrazoi gisa aurkezten zaizkigu!⁷⁹.

Horregatik da hain garrantzitsua ikuspegia iragana aztertzeko orduan. Ikuspegi kronologikoari buruz ari naiz, noski. Gaztelaniaz esaten den bezala, «*Después de visto, todo el mundo listo*». Baina betiere, ikuspegi subjektiboa dela kontuan hartuta, geure bizimoduen, geure balioen arabera sortutako ikuspuntua. Subjektibotasun hori existitzen dela onartuta, gainditzen saiatzean datza historialariaren erronka nagusia.

79. «Qué es la historia sino la forma en la que el espíritu del hombre se mide con los acontecimientos que le son incomprensibles, un elemento que sólo Dios sabe si guardan relación entre sí, sustituye lo incomprensible por algo comprensible (...) y finalmente supone la mano del azar donde seguramente actuaron miles de pequeñas causas? Todo hombre tiene su necesidad particular, de modo que millones de direcciones corren paralelamente, se entrecruzan en líneas rectas y curvas, se desafían, se frenan...», Foucault, 1978, 89.

1. ERANSKINA**1755-1766 agintaldietan aritu ziren udalkideen taula****NORTASUNA**

	1755	1756	1757	1758	1759	1760	1761	1762	1763	1764	1765	1766	1766=>
ABANZABALEGUI Pedro			A1										Bai
ACHA AZPIRI Juan						A1							
ACHA ORBEA Andrés				A2		ER							Bai
AGUIRRE Andrés												ER	Bai
AGUIRRE Juan Joseph		SPG											Bai
ARETA Francisco									A1				Bai
ARETA ZUBIAURRE Domingo								ER					Bai
ARGUIANO Lorenzo Ignacio											ER		Bai
ARITIO Andrés				ER									Bai
ARIZMENDI Agustin		ER										ER	
BERGARA ASUA Bartolomé		ER											
BURGOA Francisco Ignacio											A1		Bai
BUSTINDUI Agustín				ER									
BUSTINDUI Francisco Antonio					SPG					ER			Bai
EGUIGUREN Sevastian												SPG	
ERVITI Joseph				ER									
ESPILLA Andrés					ER			SPG	SPG				Bai
GUISASOLA ESCAREGUI Diego											ER		
GUISASOLA GARAGARZA Martín	SPG												
GUISASOLA Joseph Joaquin						SPG							Bai
IR(A)EGUI Francisco	ER									ER			Bai
LASCURAIN Juan Andrés									ER				Bai
LECETA Andrés						ER							Bai
LOIOLA Domingo					ER								
LOIOLA Juan									ER				
MALLEA ALDAZABAL Joaquin					A2								
MENDIZABAL Juan Baupptista		A1											
OLAVE Francisco	ER												
OLAVE Pedro		A2		A1									
PAGAEGUI Christobal												SPG	Bai
PAGAEGUI Pedro			ER										
SARASQUETA Andrés	A1							ER					Bai
SOROETA Juan Antonio					A1			A1					
SUINAGA ITURRAO Lucas											A1		
UNZETA BARRENECHEA Pedro				SPG									
URQUIOLA Joseph				ER									
VERGARA Felipe										SPG			
VERGARA GALLAIZTEGUI Andrés			SPG										Bai
ZUMARAN Sebastian												A1	Bai

“1755”etik “1766”ra doazen eremuak, udal-agintaldiei dagozkie. Eremu horietan agertzen diren laburdurak ezagutzen ditugu. “1766 =>” eremuari dagokionez, esan nahi du 1766tik aurrera udal-karguak betetzen jarraitu zuela.

2. ERANSKINA

Datu-baseko pertsonaietatik, 1786ko zerrendan agertzen direnak

NORTASUNA	Udal-karguak	Kapare 1786	NORTASUNA	Udal-karguak	Kapare 1786
ABANZABALEGUI Francisco	A2 1802	1 X	AZPIRI AGUINAGA Pedro		1 X
ABANZABALEGUI Pedro	A1 1757	1 X	AZPIRI Andrés		1 X
ACHA ALBIZURI Antonio		1 X	AZPIRI Domingo "menor, el de		1 X
ACHA ALBIZURI Domingo		1 X	AZPIRI MANDIOLA? Domingo		1 X
ACHA ALBIZURI Joseph		1 X	AZPIRI Miguel		1 X
ACHA Fernando		1 X	AZPIRI Pedro Antonio		1 X
ACHA Francisco Antonio		1 X	BARRUNDIA Andrés		1 X
ACHA GOROSTIETA Andrés	SPG 1771	1 X	EGUIGUREN EIZCUAGA Pedro		1 X
ACHA GOROSTIETA Joseph		1 X	EGUIGUREN Sevastian	SPG 1766	1 X
ACHA IRIONDO Andrés		1 X	GUISASOLA AMURUTEGUI Juan		1 X
ACHA José Andrés		1 X	GUISASOLA Antonio		1 X
ACHA Manuel		1 X	GUISASOLA Domingo		1 X
ACHA Miguel		1 X	GUISASOLA EGUIGUREN Antonio	HS 1786	1 X
ACHA ORBEA Andrés	A2 1758	1 X	GUISASOLA ESCAREGUI Diego	ER 1765	1 X
ACHA ORBEA Sevastián		1 X	GUISASOLA ESCAREGUI	TER 1829	1 X
AGUIRRE Andrés	ER 1766	1 X	GUISASOLA ESCAREGUI Martin	SPG 1775	1 X
AGUIRRE AZALDEGUI Domingo		1 X	GUISASOLA ESCAREGUI		1 X
AGUIRRE AZALDEGUI Juan	ER 1785	1 X	GUISASOLA Francisco Antonio		1 X
AGUIRRE Domingo		1 X	GUISASOLA Gabriel	SPG 1776	1 X
AGUIRRE Domingo		1 X	GUISASOLA GARAGARZA Martin	SPG 1755	1 X
AGUIRRE Francisco		1 X	GUISASOLA GARAGARZA Miguel		1 X
AGUIRRE Joseph		1 X	GUISASOLA Joseph Joaquín	SPG 1760	1 X
AGUIRRE Juan Joseph	SPG 1756	1 X	GUISASOLA Juan		1 X
AGUIRRE Nicolás		1 X	GUISASOLA Lucas		1 X
AGUIRRE Pedro		1 X	GUISASOLA Manuel		1 X
ARETA Domingo "menor"	ER 1773	1 X	GUISASOLA Martin	TER 1831	1 X
ARETA Francisco	A1 1763	1 X	GUISASOLA OREGUI Domingo	SPG 1815	1 X
ARETA Juan Andrés		1 X	GUISASOLA Pedro		1 X
ARETA MANDIOLA Andrés	A1 1797	1 X	IBARRA Francisco		1 X
ARGUIANO AZPIRI Gregorio	HS 1796	1 X	IBARRA Martin Antonio	ER 1772	1 X
ARGUIANO AZPIRI Joseph	ER 1772	1 X	IBARRA Miguel Antonio	SPG 1788	1 X
ARGUIANO GARAGARZA Joseph	HS 1779	1 X	IÑARRA IRAEGUI Joaquín	ER 1792	1 X
ARGUIANO Lorenzo Ignacio	ER 1785	1 X	LECETA Agustín		1 X
ARISMENDI ARRIETA Andrés		1 X	LECETA Andrés	ER 1760	1 X
ARISMENDI ARRIETA Domingo		1 X	LECETA Joseph Francisco		1 X
ARISMENDI ARRIETA Domingo		1 X	LECETA Juan	A2 1789	1 X
ARISMENDI ARRIETA José		1 X	LOIOLA Domingo	ER 1759	1 X
ARISMENDI Agustin	ER 1756	1 X	LOYOLA Agustin	ER 1797	1 X
ARISMENDI ARRIETA Domingo "el		1 X	LOYOLA Domingo		1 X
ARISMENDI ARRIETA Felix		1 X	LOYOLA Gabriel		1 X
ARISMENDI ARRIETA Joseph		1 X	LOYOLA Juan Bautista		1 X
ARISMENDI Francisco Antonio	A1 1773	1 X	MANDIOLA Domingo	ER 1780	1 X
ARISMENDI Manuel Joachin		1 X	MANDIOLA Ignacio		1 X
AZPIRI AGUINAGA Miguel		1 X	ORBEA Francisco		1 X

NORTASUNA	Udal- karguak	Kapare 1786	NORTASUNA	Udal- karguak	Kapare 1786
ORVEA Pedro	HS 1800	1 X	ECHEVERRIA Andrés		2 X
PAGAEGUI Christobal	SPG 1765	1 X	ECHEVERRIA Francisco		2 X
PAGOAGA Domingo	SPG 1773	1 X	ECHEVERRIA Francisco	THS 1831	2 X
PAGOAGA Pedro		1 X	ECHEVERRIA José		2 X
SUINAGA ITURRAO Diego	ER 1794	1 X	ECHEVERRIA José		2 X
SUINAGA ITURRAO Lucas	A1 1764	1 X	ECHEVERRIA Manuel		2 X
SUINAGA José		1 X	ECHEVERRIA Pedro		2 X
SUINAGA Juan		1 X	ECHEVERRIA Pedro		2 X
UNCETA BARRENECHEA		1 X	ECHEVERRIA Ventura		2 X
UNCETA BARRENECHEA Martín		1 X	EGOCHEAGA Manuel	HD 1791	2 X
UNCETA BARRENECHEA Martín	ER 1773	1 X	GALLAIZTEGUI Francisco		2 X
UNCETA BARRENECHEA Rafael	HS 1775	1 X	GALLAIZTEGUI Gabriel		2 X
UNZETA BARRENECHEA		1 X	GALLAIZTEGUI Agustín		2 X
UNZETA BARRENECHEA	HD 1771	1 X	GANCHEGUI Antonio	ER 1787	2 X
UNZETA BARRENECHEA Pedro	SPG 1758	1 X	IBARZABAL Fernando		2 X
UNZETA BARRENECHEA Rafael	TER 1830	1 X	IBARZABAL Martín		2 X
ZUMARAN Andres		1 X	IBARZABAL Ignacio María	ER 1777	2 X
ZUMARAN José		1 X	IRIONDO Francisco "el de Arrate".		2 X
ZUMARAN Sebastián		1 X	IRIONDO Gregorio		2 X
ZUMARAN Sebastian	A1 1766	1 X	IRIONDO Pedro		2 X
AGUIRRE ARGUIANO Gregorio	ER 1800	2 X	IRIONDO ZEZEIL Diego		2 X
AGUIRRE ARGUIANO Martín	TER 1828	2 X	LARRAÑAGA Diego		2 X
AGUIRREBEÑA Domingo		2 X	LARRAÑAGA José		2 X
ALBERDI Francisco Ignacio	HD 1797	2 X	LARRAÑAGA Juan Antonio	HD 1776	2 X
ALBERDI Matheo		2 X	LASCURAIN Juan Andrés	ER 1763	2 X
ALBERDI Pedro Andrés	HD 1805	2 X	LASCURAIN Juan Andrés "menor"	ER 1784	2 X
ALBERDI Pedro Antonio	HS 1802	2 X	MENDIZABAL Juan Andrés	HD 1783	2 X
ALDAZABAL Andrés		2 X	MENDIZABAL Juan Bautista	A1 1756	2 X
ARAMBURU Felix	ER 1781	2 X	MUGUERZA Felix	ER 1783	2 X
ARAMBURU Marcos	SPG 1804	2 X	MUGUERZA Pedro	HS 1771	2 X
ARANA Andrés		2 X	OLAÑETA Joseph		2 X
ARANA Francisco		2 X	OLAÑETA Pedro		2 X
ARANA Joaquín		2 X	SARASQUETA Andrés	A1 1755	2 X
ARANA Pedro		2 X	SARASQUETA Francisco		2 X
ARIZAGA Francisco "el de Urquizu"		2 X	SARASQUETA Francisco		2 X
ARRAZAIN Francisco Antonio	HD 1775	2 X	SARASQUETA Francisco Antonio	HD 1781	2 X
BARRUTIA Andrés		2 X	SARASQUETA Joaquín	A2 1779	2 X
BARRUTIA Diego		2 X	SARASQUETA Joseph	SPG 1793	2 X
BARRUTIA Domingo		2 X	SARASQUETA Juan		2 X
BARRUTIA Joaquín		2 X	SARASQUETA Lorenzo		2 X
BARRUTIA Sevastián		2 X	SARASQUETA Pedro		2 X
DOISTUA Antonio	HS 1784	2 X	TELLERIA Andrés		2 X
ECENARRO Pedro Antonio	HD 1773	2 X	UBERA Domingo		2 X
ECHEVERRIA Andrés		2 X	UNAMUNO Agustín		2 X

NORTASUNA	Udal-karguak	Kapare 1786	NORTASUNA	Udal-karguak	Kapare 1786
UNAMUNO ARIZAGA Domingo		2 X	BUSTINDUI RUIZ Agustín	ER 1757	4 X
UNAMUNO Francisco		2 X	BUSTINDUI RUIZ? Domingo		4 X
URQUIOLA Juan Bautista		2 X	ERBITI Sebastián	ER 1790	4 X
ZELAA Francisco Ignacio		2 X	GABIOLA Juan Andrés	HS 1783	4 X
ZELAA Juan Ignacio		2 X	GARRO Andrés		4 X
ZELAA Mateo	HD 1804	2 X	MENDECUTE Joseph	ER 1778	4 X
ZULOAGA Marcos	SPG 1772	2 X	OLABE Juan		4 X
ZULOAGA Simón		2 X	OLAVE Andrés	ER 1771	4 X
ZULOETA Ignacio	HS 1769	2 X	OLAVE Domingo	A2 1777	4 X
ZULUETA Pedro	HD 1772	2 X	OLAVE Fernando	SPG 1779	4 X
ARIZAGA Domingo		3a X	OLAVE Pedro	A2 1756	4 X
AZCUE Francisco Antonio	HS 1781	3a X	UBERUAGA Andrés	SPG 1785	4 X
BENGOA Joaquín	HS 1804	3a X	UGALDE Ascensio		4 X
BERRAONDO Joseph Antonio	HD 1768	3a X	URTEAGA Francisco	HD 1770	4 X
BERRAONDO Joseph Manuel	HS 1792	3a X	VERGARA Felipe	SPG 1764	4 X
IRARRAGA Francisco "el de		3a X	VERGARA Francisco		4 X
ALDASORO Ignacio		3b X	VERGARA Ignacio		4 X
EGUREN Pedro		3b X	VERGARA Joseph	SPG 1787	4 X
GALPARSORO Esteban		3b X	ZUMARAN UBERUAGA Andrés	SPG 1785	4 X
MUGUERZA Jose		3b X	RUIZ Joseph	HS 1789	5b X
MUGUERZA Manuel Andrés		3b X	LIBORNA Manuel Joaquín	HS 1803	5a X
MURUA Andrés	HS 1774	3b X	ALBIZU Gabriel	HS 1835-1	5b X
APELLANIZ Diego "el de Isasi"		4 X	ITURRIOZ Agustín	HS 1791	5b X
ARISPE Adrián		4 X	MAIZTEGUI José		5b X
ARITIO Juan Baptista	ER 1779	4 X	URBINA Manuel		5b X
ARITIO Manuel Joaquín	SPG 1784	4 X	USATORRE Andrés		5b X
ARREGUI Pedro Ignacio	HD 1794	4 X			
ARRIAGA Francisco		4 X			
ARTAEACHEVERRIA Francisco	HD 1786	4 X			
BASCARAN Agustín	SPG 1791	4 X			
BASCARAN Antonio		4 X			
BASCARAN Domingo		4 X			
BASCARAN Fernando		4 X			
BASCARAN Isidro	HS 1799	4 X			
BASCARAN Juan Bautista	ER 1794	4 X			
BERGARA Alberto		4 X			
BERGARA Andrés		4 X			
BERGARA ASUA Bartolomé	ER 1756	4 X			
BERGARA BIZCARTEGUI Ignacio		4 X			
BERGARA Blas		4 X			
BETOLAZA Francisco	A1 1821	4 X			
BURGOA Francisco Ignacio	A1 1765	4 X			
BUSTINDUI Francisco Antonio	SPG 1759	4 X			
BUSTINDUI Juan Esteban	HD 1784	4 X			

“Kapare 1786” eremuan erabilitako laburduren esanahia argitzeko, dokumentuak eskaintzen dituen azalpenak jaso ditut, beren-beregi.

1: «Vecinos que se hallan en posesión de su nobleza en la citada villa de Eybar, admitidos por tales y a los oficios y cargos honoríficos de ella, los que entre ellos poseen millares como descendientes de las casas y solares conozidos, existentes en la misma villa sin que tengan formalizadas sus Ydalguías».

2: «Originarios de esta Provincia de Guipuzcoa y descendientes de sus casas y solares que se hallan en posesion de sus Ydalguias, admitidos a la vecindad y oficios honorificos».

3: «Los que se hallan conceptuados por originarios de esta misma Provincia de Guipuzcoa, pero no tienen hechas sus Ydalguias ni se hallan recibidos por vecinos, con distincion de los que de ellos se consideran con medios para costear su formal prueba (3a) y de los que al parecer carecen de medios para ello (3b)».

4: «Advenedizos Nacionales que se hallan en posesion de su Nobleza e Ydalguia admitidos a la vecindad y al goze de los empleos y cargos honorificos, los que entre ellos poseen millares».

5: «Advenedizos Nacionales que no tienen acreditada su nobleza; con distincion tambien de los que entre ellos se consideran con medios para su formal prueba (5a), y de los que al parecer carecen de dichos medios (5b)».

6: «Advenedizos extranjeros con igual distincion de los que entre ellos se hallan en posesion de su nobleza (6a) y de los que se consideran sin medios para poderla justificar (6b)».

3. ERANSKINA

1740-1779 bitarteko kanpaina militarretan parte hartutakoak

NORTASUNA	1740-6 2 K.B.	1779-10 Guardak.	NORTASUNA	1740-6 2 K.B.	1779-10 Guardak.
ACHA ALBIZURI Domingo		Sold-D	ACHA Alfonso	Alf. 1742	
ACHA GOROSTIETA Joseph		Sold-D	AGUIRRE ARGUIANO Gregorio		Sold-Z
AGUIRRE AZALDEGUI Domingo		Sold-Z	AGUIRRE Francisco Ignacio		Sold-D
AGUIRREBEÑA Domingo		Sarj-2	ALBERDI Francisco, "el de Gorosta"		Sold-O
APELLANIZ Diego "el de Isasi"		Sold-Z	ARETA Francisco	Tte. 1762	
ARETA Juan Andrés		Sold-D	ARETA MANDIOLA Andrés		Sold-D
ARETA ZUBIAURRE Domingo	Sarj. 1762		ARITIO Juan Bautista		Sarj-1
ARIZAGA Francisco "el de Urquizu"		Sold-Z	ARIZMENDI Agustin	Tte. 1740 Kap. 1747	
ARIZMENDI ARRIETA Domingo "el de Aiaga"		Sold-O	ARIZMENDI ARRIETA Ramón		Sold-D
AZPIRI AGUINAGA Pedro		Sold-D	AZPIRI AZALDEGUI Domingo		Sold-Z
AZPIRI AZALDEGUI Joseph		Sold-D	AZPIRI Domingo "menor, el de Elzarraga"		Sold-O
BARINAGA Pedro Antonio		Sold-Z	BARRUNDIA Francisco Ignacio	Dan. 1740	
BERGARA ASUA Andrés		Sold-D	BERGARA BIZCARTEGUI Ignacio		Sold-Z
BERGARA Joseph "el de Zelaia"		Sold-Z	BUSTINDUI RUIZ Agustín	Sarj. 1747	
CUTUNEGUIETA Matías "el de Cutuneguieta".		Sold-O	ECHABARRIA Joseph		Kap.
ECHAVARRIA Andrés		Sold-Z	ECHAVARRIA Martin Antonio		Sold-Z
EGUIGUREN EIZCUAGA Pedro		Sold-Z	ERM TI Joseph	Alf. 1740 Sarj. 1747	
ESPILLA Andrés	Alf. 1762		GALLAIZTEGUI Gabriel		Sold-Z
GANCHEGUI Pedro Antonio		Sold-Z	GUISASOLA ESCAREGUI Francisco "el de Escaregui".		Sold-O
GUISASOLA Felipe		Sold-D	GUISASOLA Francisco Antonio		Sold-D
GUISASOLA Francisco "el de Elorreta"		Sold-Z	GUISASOLA GARAGARZA Miguel		Sold-D
GUISASOLA Lucas		Sold-D	GUISASOLA Pedro "el de Zozola"		Sold-Z
IBARRA Domingo		Sold-D	IRAEGUI Pedro		Sold-D
IRARRAGA Francisco "el de urquuegui"		Sold-Z	IRIONDO Francisco "el de Arrate".		Sold-O
IRIONDO ZEZEIL Diego	Kap. 1740		LASCURAIN Juan Andrés	Kap. 1762	
LASCURAIN Juan Andrés "menor"		Sarj-2	LASCURAIN Pedro	Sarj. 1740 Tte. 1747	
LECETA Andrés	Tte. 1742		LECETA Joseph Francisco		Sold-D
LETURIONDO Joseph		Sold-Z	LOYOLA Agustin		Sold-D
LOYOLA Domingo	Sarj. 1742		MENDECUTE Andrés		Sold-D
MENDIZABAL Francisco		Sold-D	MENDIZABAL Hilario	Kap. 1742	

NORTASUNA	1740-6 2 K.B.	1779-10 Guardak.	NORTASUNA	1740-6 2 K.B.	1779-10 Guardak.
MONASTERIOBIDE Francisco "el de Caminocoa"		Sold-O	OLAVE Fernando		Alf.
SARASQUETA Andrés	Sarj. 1762		SARASQUETA Andrés "el de Azpiri"		Sold-O
SARASQUETA Joaquín		Tte.	SARASQUETA Joseph "el de Isasi"		Sold-Z
SARASQUETA Pedro "el de Iregui"		Sold-Z	SUSTAETA Juan	Alf. 1747	
UBERA Domingo		Sold-D	UBEROAGA Martín "el de Mandiola"		Sold-Z
UBEROAGA ZUMARAN Joseph		Sold-D	UNAMUNO Miguel		Sold-D
UNZETA Rafael	Sarj. 1740		URTEAGA Francisco		Sarj-2
ZELAA Joseph		Sold-D	ZUMARAN José	Sarj. 1742	

“1740-1762 K.B.” eremuan erabilitako laburduren esanahia honako hau da: Kap. = Kapitaina; Tte. = Tenientea; Sarj.= Sarjentua; Alf. = Alfereza.

“1779-10 Guardak.” eremuko laburduren esanahia aurrekoen berdina da, berriak diren beste hiru hauekin: Sold-D = Soldadua derrigorrez; Sold-Z = Soldadua zozketaz; Sold-O = Ordezko soldadua.